




ARGIA

EUROPAR
GOTORLEKUAREN
ONGIETORRIA
BAZTERKERIA





OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL) ABENDUAK 19, LARUNBATA

saio bakarra: 17:00etan

Sarrerak: aurretik 7 euro, egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Harremanetarako:

☎ 943 37 15 45
sustapena@argia.com

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak
Usurbilgo Taldea

 **ARGIA**

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailua
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Estitxu Garai Artetxe
- 20 Angel Erro
- 21 Jon Alonso
Joanes Etxebarria
- 22 Ramon Etxezarreta



Teresa Toda, Sare mugimenduko bozeramaile eta 'Egin'-eko zuzendariordearekin mintzatu gara. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGi-KONTRA:
CÉSAR RENDUELES
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: JAVI JULIO

SAKONEAN

- 14 | Teresa Toda: «Presoak etxera itzuli behar dira, eta modu duinean» / Miel A. Elustondo
- 24 | Errefuxiatuen krisia: Europara iritsitakoan, zer? / Martin Mendizabal Garai, Ane Irazabal, Mikel Garcia Idiakez
- 32 | Marc August Muntanya, Katalunian frackinga eragozten duen legeaz / Igor Goikolea
- 34 | Erremontea eraberritzea, gazteen esku / Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
- 36 | Astebetez euskara hutsean bizitzen saiatuko dira Donostiako Egia auzoan / Onintza Irureta Azkune
- 42 | Eduki biralak sareko euskal komunitatean / Kepa Matxain
- 46 | Ainara Ortega: «Jazzean badaude bertsolaritzaren antzekoak» / Judith Montero Imaz

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Asier Arrate, Axier Lopez, Eñaut Agirrebengoa, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

ekoizpenak: Berdaitz Goia. **Idazkaritza:** Aloña Soraluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.

Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

50. da

Francoren diktadurapean, 1965eko azaroaren 1ean antolatu zuten lehen edizioa. 19 argitaletzek hartu zuten parte Andra Mariaren basilikako arkupean. Ordutik ez da mende erdia alferrik igaro. Euskal Herriko sorkuntzaren erakusleho nagusietako bat da Durangoko Azoka eta euskal sortzaileentzat urteroko mugarrria.

Argazkilaria: Dani Blanco

2015eko argitalpenak



“Euskal liburua ez den oro soberan dago Azokan”

Leopoldo Zugaza,
Durangoko Azokaren
sustatzailea (Deia)

argia.eus-en ikusgai



Sahara: gatazka politikoaren erdian

40 urte bete dira aurten Marokok Mendebaldeko Sahara okupatu zuela. Zer egoeratan dago beraien borroka? Nola bizi dugu hori Euskal Herritik?



Geuk be ondarrutarrez

Ba al dakizu zer den arrosinga ibiltzea? Eta kontixu? Jatorri anitzeko ondarrutarrak kamara aurrean.



Hiriguneetako biztanleen %98k aire kutsatua arnasten du

Asier Arrate Iruskietza
@AsierArrate

Europako Ingurumen Agentziak (EIA) aurkeztutako azken txostenaren arabera, aireko kutsadura maila oso altua da Europar Batasunean. 491.000 heriotza goiztiar izan ziren 2012an hainbat kutsatzaileraren eraginez.

2011 eta 2013ko datuak aztertu ditu EIAk txostenean. Jasotako informazioari esker ondorioztatu dute Europar Batasuneko hiri-inguruneetako biztanleen %98 bizi den tokietan kutsadurak gainditu egiten dituela Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) gomendatutako mugak. Hiri batzuetan –hiri-inguruneetako biztanleen %30 hor bizi da– muga legalak ere gainditzen dira.

Europar Batasunean partikula finek heriotza gehien eragiten badituzte ere, kutsatzaile horrentzako muga legala aurten jarriko da indarrean. Kutsatzaile horiek, osasunean bakarrik ez, landareetan ere eragina dute eta uzten ekoizpena murrizten dute.

Aire kutsadurari aurre egiteko neurriak

Ekologistak Martxan taldeak aire kutsadura murrizteko gobernuek eta erakundeek hartu beharreko neurriak eman ditu: motordun ibilgailuen trafikoa murriztea, mugikortasuna murriztea, garraio publikoa indartzea –batez ere elektrikoa– eta bizikletei erraztasunak eskaintzea hirietan. Industrian, bestalde, ezinbestekotzat dute teknologia industrial onena eskuratzea kutsadura saihesteko, eta zentral termikoen ordez energia berriztagarrien alde egitea.

“Euskararen borroka gizarte hobe baten borroka izan behar du”

LOREA AGIRRE, JAKIN ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

“Euskarak pasa behar du menderakuntza egoeran dauden beste prozesu guztietatik, eta feministari eskatzen badiot hizkuntza gutxituarekiko sentsibilitatea, euskaldun kontzientziadunari feminismoarekiko sentsible izatea eskatu behar diot. Berdin bazterretan dauden guztiekin. Mundu justuago eta duinago baten aldeko borrokan, elkarlanean joatea da bidea. Eta zuk exijitu, baina zuri ere exijituko dizute”. **HIRU DAMATXO IDEIA FAKTORIA / GURE BAZKA (2015/12/02)**



MANDELAREN HERIOTZAREN BIGARREN URTEURRENA

Kontakizunaren borroka

Abenduaren 5ean bi urte bete dira Nelson Rolihlahla Mandela hil zela. Hego Afrikako apartheidaren aurkako borrokaren –baita armatua ere– aurpegi ezagunena da *Madiba*. Robben Uharteko kartzelan 27 urte gatu izan zuten “terrorista” bakearen aldeko ikurretako bat da egun mundu osoan.

EGILEA: VISUALIZING IMPACT / ITZULPENEA: AXIER LOPEZ





AIARALDEA KOMUNIKAZIOA

Adierazpen instituzionalari ekimen sozialeko euskaltegien erantzuna

Argia

@argia

Eusko Jaurlaritzak eta beste zazpi erakundek abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, euskaldun berriak ospakizunen ardatz hartu nahi izan zituzten, besteak beste hizkuntza askatasun efektiborako aitzindari direlako.

Adierazpen instituzionalaren arabera, "hizkuntza askatasun efektiborako eta demokrazia linguistiko iraunkorrerako bidean aitzindari izan dira euskaldun berriak. Euskarak irabazitako hiztun bakoitzak euskaraz aritzeko aukerak zabaltzen dizkie bere inguruko gainerako hiztunei. Gure bizikidetzaren oinarri nagusietarikoa da hizkuntza eskubideak bermatzea eta errespetatzea, inor ez behartzea hizkuntzaz aldatzera".

Ekimen sozialeko euskaltegiek adierazpenari erantzun diote esanez, euskaldun berriak bezala irakasleek ere egunen batean gorazarrea eta zerbait gehiago beharko dutela: "Ez da nahikoa herriko plazari 'euskaltegetako euskara

irakaslea' izena jartzearekin. Behingogatik lana duintasunez egiteko baliabideak eskaini behar dira; bai, horrela egingo da egoki gorazarrea. Dagoeneko ez gara konformatzen estrategikoak garelako entzutearekin. Ezin dugu horrela jarraitu".

Medikuntzako ikasleak ere, haserre

Bestalde, EHUko Leioako Medikuntza eta Odontologia fakultateko ikasleek ere gogor kritikatu dute dekanotzak euskararekiko duen jarrera, Euskararen Egurenaren harira: "Ezin uler daiteke lau hamarkadetan dekanotzatik euskararen alde egin den ekimen ia bakarra lipdub-a eta narrazio lehiaketa izatea. Horregatik, osasungintzako karrerak euskaraz ikastea posible izan dadin urteko 365 egunetan lan egiten dihardugunoi adarjotzea iruditzen zaigu dekanotzaren jarrera. Berez, ekimena bide onetik doa, baina lan hutsala izango da jarraipenik ez badauka. Hortaz, ez dugu inolaz ere onartuko dekanotzak hura baliatzea bere burua zuritzeko eta euskararen aldeko irudi faltsu bat ikusarazteko".

EKONOMIAREN TALAIAN

Alda dezagun sistema eta ez klima



Juan Mari Arregi

Milioika lagun ari dira mundu osoan mobilizatzen, baita Euskal Herrian ere, lurraren berotzeak sorturiko klima aldaketak mehatxaturik dagoen gure planetaren defentsan. Askoz garbiagoak eta jasangarriagoak diren energia berriztagarrien aurrean, erregai fosilak sustatzen (petrolioak, ikatza eta gasa) dituen sistemaren biktima da planeta. Etengabeko degradatzea ikusita 1980tik klimari buruzko mundu mailako gailurrak egiten dira, baina ez dira gutxienezko adostasunak lortu, bereziki AEBak, Txina eta EB buru diren industria-lizaturiko herrialdeen artean. Egun batzuk barru amaituko da Parisen munduko 195 herrialde bildu dituen klimaren azken gailurra. Baina beldur gara berriz ere ez ote den porrota izango, edo asko jota, "asmo onen" argazkia baino ez, duela 35 urtekoa bezalaxe.

Zergatik ez da aurrera egiten sistema aldatu eta energia berriztagarriak erabiltzeko bidean? Beti bezala, arrazoi ekonomikoak daude tartean. Munduko gobernu guztien atzean multinazional handiak daude. Erakunde horiek ez ditu inork aukeratu, baina gobernuei euren energia sistema inposatzen diete. Eta gaur, erregai solidoetan besterik ez dute negoziarik ikusten. Berriztagarrien alde egingo balute, haien pribilegioak arriskuan jarriko lituzkete. Aldaketa klimatikoaz hitz egingo dute negozio-aukera bihurtzen denean (bio-erregaiak, deribatuen merkatua, hondamendientzako aseguruak, labore inteligenteak...), ez lehenago.

Bitartean, aldaketa klimatikoa dagoenik ere uko egiten dute eta milioika diru inbertitzen dute euren ideiak zabaltzeko. Parisen, lobby negazionistak jo eta su ari dira, eta hala segiko dute gailur gehiago antolatuz, argazkia atera eta euren sistemari eusteko.

9

PP-Ciudadanos, beste lau urterako harresia



Xabier Letona

@xletona

ESPAINIAKO hauteskundeak ez datoz iragan maiatzean aurreikusten ziren moduan, ez espainiarrentzat, ez euskaldunentzat. Ekainean udalak eratu zirenean, PP kanporatzea egiazko aukera gisa ikusi zen. Ezkerreko fronte zabalen esperientziak aldaketaren aukera gizen du zuen. Madril eta Bartzelonan posible izan bazen, zergatik ez Espainian?

Eskuinak beti ikasten du azkar eta gainera bitarteko asko ditu. Nor elikatu behar da PP gainbehera badabil? Katalan independentistek El Cid Campeadorren ezpatarekin aurre egiten dien Albert Rivera eta Ciudadanos, horra aukera on bat. Pentsatu eta egin, horra Podemos eskuindarra. Botere ekonomiko handiei ez die halako axolarik Rajoy edo Rivera den, ezta gehiegi Sanchez bada ere. Iglesiasek urduri jartzen ditu, ordea. Baina dagoeneko gutxi. Ezusteko handirik ez bada, Podemosen eta PSOEren emaitzek ez dute emango PP eta Ciudadanos gaingaitzeko beste.

Ezusteko handirik ez bada, Podemosen eta PSOEren emaitzek ez dute emango PP eta Ciudadanos gaingaitzeko beste

Euskal Herritik begiratuta, aldaketaren egarritik, esperantza apur bat egin izan dugu: bakeari behingoz ate bat irekitzeko, LOMCE bazterreratzeko, lan erreforma gehiago saihesteko, gerra abentura berriei uko egiteko, Katalunian negoziatziorako ate bat ireki dadin...

Bada ez, denak adierazten du gai horietako askok PPren eta Ciudadanosen itun-harresiarekin egingo dutela topo. Hauek gaingaitzeko esperantza gutxi da, baina gehiengo osoa lortu ezean, izan daiteke periferiako botoak oraingoan ere erabakigarri bihurtzea.

EUSKAL HERRIKO emaitzei begira PPk eta PSOEk beti dute uzta hobea Espainiako orokorretan Euskal Herrikoetan baino, baina inkestek oraingoan ez dizkiete emaitza onak ematen. Joerak ere ez. Azken 20 urteetako emaitzarik txarrena eskuratu zuten 2011n. PSOEek 5 eserleku lortu zituen Hego Euskal Herrian, 4 EAEn eta 1 Nafarroan. PPk EAEn 3 eta UPN-PPk 2 Nafarroan. Nafarroan eutsiko diote seguruenik, baina EAEn ez dago batere argi: CISEko sondeoak 2 eserleku ematen dizkio PPri eta beste 1 edo 2 PSE-EERI. Gainbeheran datoz biak, baina ez da erraza irudikatzea zartakoa hainbestekoa izan daitekeenik. Espainian aparretan dabilen Ciudadanosekin, aldiz, inkesta gehienak bat datoz: ez du eserlekurik lortuko.

Euskal Herria desberdina da, Ciudadanosek ez, baina Ahal Duguk bai. Bost eserleku aurreikusi dizkio CISEko inkestak, lau EAEn eta bat Nafarroan. Roberto Uriarteren dimisio eta guzti halako emaitzak lortuz gero, oso onak lirakeke. Nafarroan CISEk ez du diputaturik ikusten Geroa Bairentzat (Koldo Martinez). Oso posible da, hala ere, eserleku hori lehian ibiltzea EH Bildu eta Ahal Dugurekin.

EAJri eta Bilduri ere 2011n emaitzen antzekoak iragarri dizkiote hainbat inkestek. EAJk hala espero du (5 eserleku), baina EH Bildu pozarren legoke 6 eserleku lortuko balitu (2011n 7). Gehi-

txo dirudi, batez ere Ahal Dugu hor da goela ikusita.

SIGLAK BATUTA edo bakarka gehiago? Politikan sarri egiten den galdera da eta oraingoan Nafarroak erantzun beharko du, Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerrak zerrenda bateratua osatu baitute Senaturako. Lehia izango dute UPN eta PPekin, baina maiatzeko hauteskundeetako datuekin erkatuz gero, gobernuko indarrek aise irabazi beharko lukete (Aldaketa 160.352 boto / UPN-PP 105.994). Esperimentua borobilduko zuketuen Kongresurako ere elkarrekin joan izan balira, baina Geroa Bai eta Ahal Duguk hasieratik adierazi zuten bakarka joango zirela. Indar handietatik EH Bildu izan zen aukera horri ateak zabaldu zizkion bakarra.

EAEn ere hala izan zen. Hainbat pertsona ezagunek ezkerreko hautagai-tza bateratua eratzeke proposamena ez zen aurrera atera, baina oraingoan ere EH Bilduk agertu zuen proposamenarekiko interes handiena. Ez da harritzekoa: batetik, ez du erraza 2011n eta 2012an erdietsitako emaitzei eustea; bestetik, etorkizuneko begirada ezkerreko indarren aliantzan edo indar metaketan du, bai alternatiba instituzionalari begira, bai garapen sozial eta nazionalari so. Barne erronkak, ordea, ez dira makalak, alderdien koalizioaren egungo egituratik beste batera igaroko baita. Gaur egun, sozialdemokraziatik, antikapitalismo zorrotzeraino biltzen du; eroso bizi diren klase ertaineko sektore zabaletatik krisiak ondo jotako bozemailetara. ETaren ondorengo aro hasi berrian, ez du samurra izango horri guztiari koherentziaz eta batasunez eustea. ■

OK
<AlderdiAN Bi hizkuntzak
MENPERATZEko BORONDATEA
dago> Rafaela Romero, PSE

+

<ZORionez Hizkuntza KOMUNA
DAUKAGU; ESPAINIERA>
SANTOS CERDAN, PSN

||

<ZORionez*ESPAINIERAK
MENPERATZEN DU EUSKARA>

PS E

* GURE ESTATUAK ZUEN HERRAIA

Harrapatuta gaude El eta potentzia handien estrategien artean



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Bake usainik batere ez inondik. Estatu Islamikoa urratsez urrats betez doa lpar-Mendebalde aberatsa desestabilizatzeko bere agenda eta, haren aurrean, potentzia handiek ez dute erabili nahi Afganistandik hasita Maliraino antzua dela erakutsi duen jazarpen militarra baizik. Baretzeko orde, gordintzera egingo du gerrak.



Artez ari da Estatu Islamikoa mendebal-darrokin jokatzeko: *artez* trebeki, eta *artez* gu bere artean, tranpan erorarazten.

“Estatu Islamikoa bere planaren ‘bigarren fasean’ sartu da. Siria eta Iraken hala-moduzko kalifatoa ezarrita, orain Mendebaldea kitzikatzen du honek ero moduan erreakzionatuz bere burua hondoratu dezan. Zepo horretan erortzen ari dira politikari gogorrak”. William R. Polk da horrela mintzo *Falling into the ISIS Trap* analisi luzean.

William R. Polk (Texas, 1929) nazioarteko harremanetan aditua dela esatea gutxi da: 1962an Kubako misilen krisiak ia gerrara eramane zituenean AEBak eta Sobiet Batasuna, Polk aholkulari zegoen John F. Kennedyk gatazka kudeatzeko antolatutako kabinetean.

2014ko ekainean Polkek beste analisi sakon batean (*Understanding Islamic Fundamentalism*) azaldu zuen zein den Estatu Islamikoaren estrategia, aipamen berezia eginez bere ustez hori laburbiltzen duen liburu bati. Honen titulua (*Idarah at-Tawhish*) ingelesez *Management of Desolation* itzuli dute, euskaraz “Suntsiketaren kudeaketa” emango lukeena. Ez dago garbi bere egile Abu Bakr Naji gizon bakarra den ala ezizen hori darabilen komite bat.

Funtzionario yanki zaharraren ustez, Elk egun gutxitan Parisen, Maliko Bamakon, Beiruten eta Egipton –hegazkin errusiara leherraraziz– burutako sarraskiekin lortu du nahi zuena. Frantzia,

Errusia, AEBak eta enparauek ekin diote kanpaina militarriari El desegiteko.

Gisa honetako kanpaina militarrek ematen dutena ikusita dago aurretik Afganistanen, Iraken, Libian eta beste hainbat lekutan. “Elk ikasi du lezioa –dio Polkek– baina antza denez gure liderrek ez”.

Hasteko, gerra asimetriko hau asimetrikoa da kostuetan ere. Elren borroka nahiko merkea da. Landa eremuetan finkatu direnez, zafratuak direnean sakabanatu egiten dira eta ezkutatu, aukera berrien zain. Aldiz, gizarte industrializatueta hiribildu handietan bizi garenok ezin dugu horrelakorik egin.

Haiek koste gutxirekin kalte handia egiten digute, eta guk haiei oso min gutxi sekulako dirutzak gastatuta. 2001ko irailean islamistek mila dolar gastatuta 2.000 heriotza baino gehiago eta seguruenik 100.000 milioi dolar baino gehiagoko galerak eragin zizkieten AEBei. Parisko sarraskiak ez zitzaizkien askoz garestiago aterako azaroaren 13an.

2011n Al Kaedak bezala, Elk oraingo erasoekin aurreikusi du mendebalderok bonboka erantzungo diegula. Milioika jende ihes egingo dute, baina are gehiago geldituko dira lekuan bertan eta gure txikizio itsu masiboez herritarrek Elren besoetara eramango dituzte.

Mendebalderok diru asko xahutzen dugu eraso militarretan, pleinitzen da Polk, baina gutxi jendeen bihotzak gureganatzen. “Ez baitugu oraindik ulertu zer den gerrillen gerra bat”.

Napoleonek Espainia inbaditu zuenean, XIX. mendean, ezin zuen ulertu nola ez zieten ongi etorririk egiten espainiarrek. Absolutismotik askatzera iritsiak ziren arren –beren ustean– soldadu frantsesak, gerrillariak eta populazioaren gehiengoak ez zuten haiengan ikusten armada atzerritar zanpatzailea baizik. Napoleonek beranduago idatziko zuen gerrillari iberiar haiek suntsitu zutela bere proiektua.

Estatu Islamikoak badauka agenda

Dio William R. Polkek hiru etapa aurreikusten dituela Elk bere estrategian. Lehenean, etsaia umiliatu, kaosa zabaldu potentzia atzerritarren eta haien esku-makilak nekatu eta ero arazteko, gerrillariak agintea efikaziaz nola erabili ikasten duten bitartean.

Bigarren fasean, txikizioa zabaldu –gazelaniaz norbaitek “*propagación del salwajismo*” itzuli du–. Eskala txikiko erasoak Asian, Afrikan edo European. Orain ikusten ari garena. “Elren estrategak espero du AEBak eta gurutzatuak [potentzia atzerritar jentilak] kontraeraso militarrean abiatuko direla, horrela lagunduz jihadaren hedatzeari, milaka gazte erresistentzian parte hartzera bultzatuz”.

Jihadistek potentzia handiak lotsaizun uztean hauen errepresaliak piztu nahi dituzte, jatorrizko biztanleen eta atzerritarren arteko etena sakondu eta segurtasun gastuak handitzeko. Kostuan datza gaoa.



Reuters agentziak banatutako argazkian, polizia frantsesak Eiffel dorre inguruak zaintzen azaroaren 14an, Parisko sarraskiaren biharamunean. Salbuespen egoeran dago Frantziako estatua hiru hilabeterako eta gobernuak gerrarako gastuek aurrekontuetan zeuzkaten mugak ezabatu ditu.

Ez da kasualitatea turismo eta aisia lekuak eraso izana udazken honetan. Malin, Bamakoko hotel famatu bat. Hegazkin errusiar bat leherrarazteko, Sinaiko (Egipto) Sharm el Sheij bakantza gunetik zetorrena. Parisen, modako diskoteka, ostatuak... Horien oihartzuna ikaragarria izan da, kolpetik Mendebaldean herritarrek lehentasun nagusitzat segurtasuna jarri dute.

Jihadisten jomugak ugariak direla ohartu gara. Estatu instituzioak, bankuak, zentral elektrikoak, zentral nuklearrak, merkatal gunek, antzerkiak... Horiak denak behar badira babes-tu, segurtasun gastuak tiroaren abiadan handitu dira. Bat batean, gehiago murrizteko ez bazen ukitu ezin zen gastu publikoan atal bati mugak kendu zaizkio: armada eta segurtasunean edozein

salbuespen onartuko da, Frantzian era-kutsi dutenez.

Estatu Islamikoa, horrela, hirugarren fasean sartzeko moduan dago, "gizarte borrokalaria" edo kalifatoa eraikitze-ko fasean. Estatu Islamikoa zoro banda bat dela uste dutenek hobeto begiratu beharko dute beraien jabegoan hartu dituzten lurraldeetan darabilten politika; hurrengo *Net Hurbilen* gehiago horretaz.

Beraz, Europa, AEB eta Errusia pixkanaka barnatuz doaz lehen ere nozitu duten panoraman: Napoleon muturrez aurrera sartu eta erori zen bezala Espainian, japoniarrei Txina inbaditzean botika beretik eman zien Mao Zedongek, antzekoa Ho Chi Minhek Frantziari eta AEBei Vietnamen, oro bat afganiarrek errusiarrei...

Hori gutxi balitz, Ipar-Mendebaldeko potentzia handiek ez dute lortzen Estatu Islamikoaren kontrako fronte bakarra antolatzerik, beren aliatutzat dauzkatelako... justu El sortu eta diruz lagundu duten potentzia txikiagoak.

Nafeez Ahmed aditu britainiarrak azaldu du zergatia "NATOk babesten du Estatu Islamikoa" artikuluan: "Mendebaldeko terrorrea sustatzen duten erregimen musulmanen mende dago, horien beharra duelako Ekialde Hurbilean, Mediterraneoko eta Asiako Erdialdean dauden petrolio eta gasak eskuratzeko".

William R. Polk ez da baikorra bere 86 urteekin: "Zoritzarrez, iruditzen zait abiatu garesti beldurrez, haserre, ez-beharrez eta oinarritzeko askatasunen galeraz betetako hamarkada bat edo gehiagoren bidean". ■



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Teresa Toda, 18/98 sumarioan kondenatua

«Presoak etxera itzuli behar dira, eta modu duinean»

“Badira egun batez borrokatu eta on direnak. Badira urtebetez borrokatzen direnak, eta horiek hobeak dira. Baina badira bizitza osoan zehar borrokatzen direnak, horiek ezinbestekoak dira”. Horietan da Teresa Toda.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Kazetari izana zara, ezohiko jokalekuan jarri zaitugu, galderak egin ordez, erantzun beharrean.

Beti gustatu izan zait elkarrizketa generoa. Batez ere gogoz egiten denean, ez lan bat lehenbailehen egin, pasadizotik irteteko. Gaur egun oso ezkorra naiz gure lanbideari dagokionean. Kazetari gazteek lan baldintza eskasak dituzte, eta bestalde, hedabide gehienak enpresa handi eta botere ekonomikoaren menpe daude. Baina gure garaian, eta frankismo sasoian ere, gauzak ez ziren errazak, eta borrokatzen ginen. Pena ere ematen dit egoerak. Horri kontra egin behar zaio.

Ikerketa kazetaritzari ekiteko moduan!

Ikerketa kazetaritzarik ez dago. Ikerketa kazetaritza dela esaten da orain, baina Espainiako Auzitegi Nazionaletik edo epaitegiren batetik etorritako filtrazioa da, ez ikerketa! Erakundeek, berriz, prentsa-oharra besterik ez dute erabiltzen. Egia santua da prentsa-oharra, gobernuarena denean batez ere. Inork ez du hura zalantzan jartzen, eta horrela ez dago aurrera jotzerik.

Prentsa-ohar eta prentsaurreko, horietan biltzen da albistea.

Prentsaurrekoak askotan egitea dago-

kit, Sareko bozeramaileetako naizenez gero. Kazetariak biltzen dira, bai, baina ez dute galdetzen. Nola ez duzu, bada, prentsaurrekora joan eta galderarik egingo? Horretarako dira prentsaurrekoak, galdetzeko. Besterik da hedabide eta sare alternatiboetan gertatzen dena. Askotan jotzen dut haietara. Bestela lantzen dituzte berriak, ziztatzailegoak ere badira, hanka-sartze eta hutsegiteak ere egiten dituzten arren.

Abenduaren lehena zen atxilotu zintuztenean. Azaroak 27 zituen, berriz, askatu zintuztenean. Garaitsu horretan gabiltza.

Bai, bai... Nahiko berezia izan zen libratu ninduten eguna, zeren eta hilaren 28a nuen irteteko eguna, baina hilaren 26an, gauean, ziegara etorri eta esan zidan kartzela zaindariak: “Bihar kalera!”. “Ez, bihar ez, etzi dut irteteko eguna!”. Barruko kideak agurtu nahi nituen, pentsatuta neukan, baina ez zidaten utzi. Etxekoekin ere hitz eginda nengoan, bila etorriko zitzaizkidala esanda, baina bota egin ninduten kartzelatik inork espero ez zuenean. Inor ez neukan zain. Hilaren 27an bertan, telefono-deia egin etxera, Kordoban den taxilari solidario bati ere deitu, eta horrela konpundu ginen gutxi gorabehera. Azken ziztada izan zen.

Egineko kazetari izandako Iñaki Iriondok ere horixe hartu zuen hizpide egun hartan. Zioen kale gorrian utzi zintuztela zure zain zeuden egunaren bezperan. Zital jokatu zutela horretan ere.

Bai, bai... Oso berezia izan zen. Atxilotu gintuzten eguna bezain berezia. Sententziari nola aurre egin eztabaidatzen ari ginela detenitu gintuzten. Espetxera eta kito. Hortxe bukatzen zen auzia. Dena dela, atxilotzea hor dago, eta hor egongo da beti, baina libre geratu nintzen eguna gogoratzen dut nik, lagunekin elkartzeko eguna dut, nolabait esateko.

Sei urte kendu zizkizuten.

Ez, ez... ez dizkizute kentzen, ezin dizkizute kendu. Bizitza arruntetik ateratzen zaituzte, kartzelan sartzen zaituzte, eta han dirau zure bizitzak, bizitzaren jarraitzen duzu. Ez dira urte galduak. Zeure barneak ez ditu galtzen. Hor dira esperientziak, hor dira kartzelan ezagutzen dituzun pertsonak. Esperientzia gogorra da kartzela, askatasuna galtzen duzulako, eta askatasunarekin batera, eta dispersioarekin, askoz ere gauza gehiago. Beti zelatatuta, egun osoa zaintzapean. Elkarrizketak entzuten dizkizute, bisak kontrolatzen dizkizute eguzkitik ilargira, zuri buruzko partea ematen dute zaindarien egunero... eta orduan,



Teresa Toda Iglesia

1950, Porto Alegre (Brasil)

Espainiako diplomatiko zuen aita. Aitaren lanak agindurik, Txilen, AEBetan eta Ingalaterran bizi izan zen, harik eta bere-bere bideari ekin zion arte. Madrilen egin zituen Kazetaritza ikasketak, eta hantxe hasi zen *Eginen* berriemaile 1984an. Handik hiru urtera egunkari hartako langile zen eta mahaian zen Alcalako atentatua egin zutenean. Euskal Herrian dugu harrezkero, euskaraz. Madrilen ekin zion ikasteari, eta *Eginen* ari zela hasi zen AEKn. Kartzelan ere ez dio barkatu lantegi horri. Euskal presoen gizarte mugimendu Sareko bozeramaile da. *Egineko* zuzendariorde izanak aurtan bertan hartu du lan erretreta.



Jabier Salutregi 'Egin'eko zuzendaria kartzelatik atera zen egunean 18/98 sumarioko hainbat kiderekin batera.

URIOLA.EUS.

zuk zeure espazioak sortu eta zaindu behar dituzu. Zeurea da denbora. Lehen graduako presook hogeit hamar ordu ziegana igitzen ditugu, eta ordu horiek zureak beste inorenak ez dira, zeuk bete behar dituzu, eta hor hasten da zure lana.

Zer lan?

Pertsonala, zeure buruari buruzko lan-keta sakona. Dituzun trebetasunak ordu arte ez bezala baliatzen hasten zara. Beharbada ez zenekien eskulanak egiteko erraztasuna zenuela. Birziklatzea bera ere mundu bat da kartzela barruan. Oso gauza gutxi dituzu eskura, eta beraz, haiek berrerabiltzen ikasi behar duzu. Nik asko ikasi dut horretan. Jakina, kolektibo bateko partaide sentitzea ere ez da hutsala, kideekin sortzen den harremana ere polita da, harreman horiek lantzea, garatzea, zaintzea. Jendea beste modu batera zaintzen ikasten da kartzelan, dela zure hurrekoak, dela preso sozialak. Hor da preso dauden emakumeen egoera ere.

Ikusezina zeharo.

Han bai, han ikusten duzu. Ikusten duzu bortizkeria matxistaren eragina, ikusten duzu droga-menpekotasunak zertara jartzen duen emakumea. Emakumea bi-

garren mailakoa da gizartean, eta are bigarren mailakoagoa kartzelan. Hego Amerikatik etorritako emakumeen egoera dut beti gogoan. Droga karga txikiarekin datoz asko, hango edo hemengo aireportuan harrapatzen dituzte, eta sekulako sententziak jasotzen dituzte. Badakit batzuk mugidakoak izango direla, baina asko behartsu hutsak dira, mila edo bi mila euro –fortuna osoa, haientzat–, irabaztea dute amets, eta aldiz, espetxean bukatzen dute. Oso gorrak dira hori.

Dueñaseko (Zamora, Espainia) kartzelako korridorean irakurri nuen: "25. artikulua 2.- Zigor askatasun-gabetzaileek eta segurtasun neurriek berreztea eta gizartean birsartzea dute helburu, eta ezin daitezke lan bortxatuak izan...". Ba ote?

Kordoban, Errespetu modulua zen gurea. Presoak birgizarteratzea helburu duena, berariazkoa. Baina han erabiltzen zituzten neurriak moja barnetegi batekoak edo kuarter batekoak ziren. Oso neurri zorrotzak, inor birgizarteratzen laguntzen ez dutenak. Almazan hutsak dira kartzelak, jendea han sartu, baztertu eta bertan ahazteko tokiak. Zigorretza beste helbururik ez du kartzelak. Begira, laster dira hauteskundeak

Espainian. Hor dira betiko alderdiak eta alderdi berriak: inork ezer esan al du espetxe politikari buruz? Esango al du inork ezer? Eta ikaragarria da: neurri gogorak, egoera latza, jendearen suizidioak... Eta inork ez du kuestionatzen espetxe sistema. 70.000 omen dira kartzelatutako Espainian. Horrexek erakusten du ondoen zertarako diren espetxeak. Preso politikoen kasuan askoz okerragoa da egoera.

Ahaztuta dauzkagu presoak?

Nik uste Euskal Herrian Espainian baino sentsibiltate handiagoa dagoela presoekiko. Preso politikoa ditugulako ere bada hori, eta preso sozialen alde hor da Salhaketa, beti lanean. Baina Espainiako Estatuan, bost axola presoak. Ez nuke esango ahaztuta dauzkagula, jendeak badaki preso politikoak ditugula, badu senideen egoeraren berri, elkarte honen eta haren albistea jasotzen du, baina lanean inplikatzeko behar beste kontzientziarik ez du. Gatazkaren erakusgarri gordinena, berriz, desagertu egin da, eta arazoa bukatu dela ematen du. Presoen egoera, berriz, politikariek elkarri zer edo zer leporatzeko gaia bihurtu dute, eta horrek ez dio gizarteari laguntzen.



Bilbon urtero eguberrietan egiten den manifestazio erraldoia gorabehera...

Bai, baina dena ezin da izan Bilboko manifestazioa. Horregatik ari gara Saren Bilboko manifestazioaren bihar-munean lanean. Jendartea aldatu egin da, ordea, eta atxikimendu modua ere bai: errazago da jendea konpromiso puntualetara biltzea, egunean eguneko ekintza iraunkorretara konprometitzea baino. Elkarre guztion arazoa horixe da gaur egun. Guri dagokigunez, jendea mobilizatzea baino, kontzientziaraztea nahi dugu, sufrimenduak irauten duela kontura dadin. Nork bere sufrimendua du, eta izango du, baina, sufrimendu berririk ez da sortzen, presoek egoerak sortzen duena izan ezik: senideen bidaiek segitzen dute, presoek egoera makurrak segitzen du, preso gaixoen egoera gero eta larriagoa, libre behar zuten presoek egoera, sententzien konputoaren inguruko auzia... Beltza da egoera, atzera ari gara, bizi baldintzak gero eta okerragoak dira: Espainiako Estatuak jolasean ari da preso eta senideekin.

Estatua

“GALen garaian Madrilen bizi nintzen, eta gertatu zitzaidan GALEk atentatua egin eta hurrengo egunean Auzitegi Nazionalera joatea. Zenbait poliziaren aurpegiak ez zuen ezer adierazten, baina beste zenbaitenak, aldiz, irribarre maltzurra ageri zuen. Han zebilen polizia jendea ez zen nolanahiko maila zuena, eta Estatuaren inplikazioa argi eta garbi nabari zen”.

Alcalako atentatua

“Polizia bat, behintzat, inplikaturatua zegoela erakutsi zuten. Gero, ordea, moto istripuan hil zen hura. Egia, benetakoa, ez da inoiz jakingo. Zer gertatu zen badakigu, sumatzen dugu Estatuaren inplikazioa ere, baina ezinezkoa da frogatzea”.

Zer egin behar dugu jolas edo joko maltzur horri kontra egiteko?

Kezka konpartitu, zabaldu, eta zenbait jende aktibatu aferaren inguruan. Aferak hori ez da ezker abertzalearena bakarrik, euskal gizartearena da. Ezin da hainbeste preso politiko izan hiru milioi ez dituen herrialde batean. Zerbaiten erakusgarri da, zerbaiten seinale. Soluzioa behar du. Presoak etxera ekarri behar ditugu. Euskal Herriko espetxetara, eta etxera. Amnistia izena eman diezaiokegu, edo ez, baina prozesu baten ondorio, presoak etxera itzuli behar dira, eta modu duinean.

“Preso egon denaren gogoa kartzelara itzultzen da beti”, Joseba Sarrionandiaren poema da.

Lagunek esaten didate espetxetik pasatu garenok badugula ukitu bat, handik pasatu ez denak ulertu ezin duena. Baliteke. Espetxeak aldatu egiten zaitu, nahitaez. Bizitzari buruzko bestelako ikuspegia dugu. Bestelako balioak dituzu. Saluri ere [Jabier Salutregi, *Egineko zuzendaria*] entzun diot, kartzelatik ir-

ten ondoren gehiago maite duzu jendea, gehiago baloratzen duzu, ezagutzen ez duzun jendearekin harremanetan jartzeko erraztasun handiagoa duzu.

Salutregi aipatu duzu, oraindik orain ir-ten da libre.

Gure sumarioan zirenetatik Karlos Trenor eta Joxean Etxeberria geratzen dira barruan.

Espetxea

“Espetxea eta emakumeari buruz idatzi nahiko nuke, horretaz ez da-eta askorik idatzi. Zenbaitek, berriz, esan izan dit memoriak idatzi beharko nituzkeela, baina kazetariak beti bere barruan ez, kanpoan dagoena kontatu behar izaten du, eta ikuspegi hori aldatzea ez zait ariketa erraza iruditzen. Beste modu batera idatzi beharko nuke”.

Egin ez da libre aterako inoiz. Betiko lurperatu zuten egunkaria, eta langile askoren bidea.

Zer esan zuten, bada, 2009an? Ez zutela itxi behar, horretarako arrazoirik ez zegoela. Baina hilda dago *Egin*. Zigor operazioa izan zen, Segiko gazteen kontrakoa bezalakoa. Absolbitu egiten dituzte. Ikusiko da zer gertatzen den Segura sarekadarekin, edo Herrira mugimenduen kontrako operazioarekin. Zigor operazioak dira, *Eginekoa* izan zen bezala. Ez zegoen egunkaria iteko arrazoirik, baina deserosoa zen, gauza asko agerian uzten zuelako, bestek esaten ez zuena esaten genuen. Ezker abertzalearen aurkako operazio politikoaren barruan itxi zuten *Egin*. Hura baino lehen, Herri Batasunako Mahai Nazionala epaitu zuten 1997an bertan. Edozer gauza egiteko gai sentitu ziren. Aznarren hitz haiek-eta. “Uste zuten ez ginela ausartuko!”. Edo Juan Mari Atutxaren 50 gramo amosal haiek, Euskadin egunero lehertzen omen zirenak, *Egin* adieraziz... Planifikatuta zegoen. *Egin* itxi eta gero, 18/98 makrosumarioa osatu zuten, eta haren barruan urtu zen *Eginen* auzia. ■



Azken hitza: Hil egin zuten

1993an egin zen Alcalako atentatuaren epaiketa: Angel Duce Espainiako polizia jo zuten hiltzaile, nahiz eta beste zenbait lagun ere zigortu zituzten. Duce espetxe baimenak lortzen hasi zen 1995ean, eta handik bi urtera hil egin zen, moto istripuan. “Hil egin zuten, hizketan hasita zegoen”, Teresa Todak noizbait esana.

Euskaragida .eus

2015 2016

- aldizkariak
- DVD-ak
- jokoa
- CD-ROM / APP-ak
- musika
- gurasoentzako materiala
- komikiak
- liburua
- hiztegiak
- autoikaskuntza

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua

Donostia

OSS2016.EU

Zer gerta ere

Trantsizio faltsuaren ur uherrak goia jo du. Gero eta nabarmenago ageri da Espainiako Estatuaren bilbadura dekadente eta narriatua. Zimendupean ustelkeria, injustizia, pertsona eta herrien eskubideen ukapena daude. Areago, gehiago absolutuaren mailukadaz eta krisi ekonomikoaren itzaletan, duela berrogei urte egiteke geratu zitzaizkion zenbait erreforma ilun abian jarri ditu Alderdi Popularrak (PP).

Une batez bazirudien -inguruotan ilusio ñimiño baten printza pizteraino- egitura herdoildu hori goitik behera jaustear zegoela; trantsizio-epea etor zitekeela. Baina ilusio hitzak ez ditu alferrik bi adiera, eta, tamalez, Espainiatik datozen albiste politikoetan beti gailentzen da bigarrena: sentimenez hautematen denaren interpretazio okerra.

Birrintzeaz egotetik galbanizaziorako bidea topatu du *statu quo*ak. Gainbeheraren gidari eta ikur nagusi den alderdi-bitasunak neurri-neurriko makuluak topatu ditu ezkerretik eta eskumatik (zentroa katamalo hartuta). Alderdi berriak, aurpegi berriak, baina, finean, 78ko izpirituaren jarraipena. Hauteskunde orokorrak hurreratu ahala, gero eta garbiago dago ez dela aro konstituziogile zintzorik irekiko. Gehienara, pintura-eskualdi bat itxaron dezakegu, kirurgia estetikoko operazioaren antzeko zerbit. Litekeena da, oster, emaitzek ufada zentralizatzaile ultrakontserbadore bati bide egitea.

Estatu higatu horretatik alde egiteko abiagunean daudenentzat hauteskunde ondorengo agertokia aldi berean izan daiteke arrisku eta abagune. Batetik, aldaketa-gosez eta gobernu zentral berriak dezepzionatuta, independentzian har dezakete aterpe orain arte aukera hori garbi ikusten ez zuten zenbait ka-



Estitxu Garai Artetxe

EHUKO IRAKASLEA

@egarai

Hauteskunde orokorrak hurreratu ahala, gero eta garbiago dago ez dela aro konstituziogile zintzorik irekiko. Gehienara, pintura-eskualdi bat itxaron dezakegu, kirurgia estetikoko operazioaren antzeko zerbit. Litekeena da, oster, emaitzek ufada zentralizatzaile ultrakontserbadore bati bide egitea

talanek. Horretarako parada eskainiko luke prozesu konstituziogile berezia garatzen hasteak, betiere Kataluniako estatu-proiektua haustura demokratikoarekin behar bezala uztartzen jarraituz gero. Bestetik, ordea, argi dago Moncloako gobernu berriaren helburu behinena Kataluniako sua itzaltzea izango dela. Saiakera neutralizatzailea askotarikoa izan liteke: ukazio eta errepresiotik elkarrizketa irekitzeraino. Lehenengoa, ukazioaren jarrera, sua haize bidez amatatzen jarraitzea litzateke. Bigarrena, berriz, eraginkorragoa izan daiteke itzaltze lanetan, eskaintza erakargarri bidez, deskonexio-adierazpena sinatu duten eragileen artean kontraesanak sortzen ahaleginduko baitira.

Une horretarako gertu -alegia, hurbil eta prest- egon beharko dute alderdi independentistek. Zoritxarrez, prozesua enegarren korapiloan dago. Hariak askatu bitarteko egoera da, hain zuzen ere, Espainiatik etorriko diren oldarraldiei aurre egiteko posizioz ahulena. Inork ez zuen esan erraza izango zenik tartean dauden bi mutur antagonikoek, ezker antikapitalistak eta eskumako neoliberalak, batera zerbit erakitzea. Bada, aurrera egiteko, herria egitea eta estatua erakitzea izan beharko da lehentasuna. Biek ala biek asmatu beharko dute nola uztartu prozesuaren hobe beharrez zenbait kontutan maltasunez jokatzeko eta norbere ideenganako gutxieneko koherentzia mantentzea. Soka alde batera gehiegi tenkatuz gero, atzerabuelarik ez duen apurketa gerta liteke. Ez da horretarako garaia.

Zurrumbilo mediatikoak beste tokietara begira mantentzen gaituen arren, fokutik kanpo dagoen Euskal Herrian ere aukera berriak zabaltzea daitezke. Erabakitze eskubidearen lurra ereinda mantendu beharko da, zer gerta ere. ■

Anekdota asmatuak

Joseba Sarrionandiari buruzko tesia prestatzen ari den ikasle batek konstatuta dakit, hemen esan ezin dudan herrialde, bai, horretara ikertzeraz joan zenean baieztatu zuela *Herri proiektua* poema jatorrizkoa askoz luzeagoa zela, gero ezagutu dugunarekin alderatuta.

Lagunak gogoratzen zituen aldaketetatik –buruz ari zen bera eta buruz ari naiz ni ere– bat kontatu zidan: Euskal Herria euskaldunez, korearrez, swahili beltzez eta eskandinaviar blondez gainpopulatzeko eskatu ondoren eta Euskal Herriari izatearenekin batera ez izatearen abantailak opa baino lehen, proposamen hau desagertua zen: Euskal Herriari bere mendeetako jantzi jator zintzoa erantzi eta anekdota asmatuez jostea berri bat.

* * *

Ezaguna da Gabriel Arestik poeta gazteagoengan izandako eragin eta maisu rola. Haietako asko joaten zitzaizkion aholku eske. Diotenez, behin Joseba Zulaikak galdetu zion (beste bertsio batzuetan Bernardo Atxaga, Jon Juaristi, edo are Iñaki –edo Patxi– Zabaletaren izenek ordezkatzan dute) bere bi poetetako zein aurkeztuko zukeen garaiko literatur lehiaketa batera. Poeta gazteak lehen poema irakurri zion. Hurrengo irakurtzeari ekin aurretik, Aresti, eritasunak baldartu arren, besaulkitik jaikita esan zion: “Argi daukat dagoeneko. Aurkeztu bigarren poema”.

* * *

Helen Mirren aktoreak bere oroitza-pen liburuan agertzeko bezain aipagarritzat jotzen dituen maitaleen artean euskaldun bat dago. Mirrenek, hitz jokoa eginez, *my bilbo* deitzen dio beti, XVI. mendeko ingelesez “nire ezpata” esan nahi baitu, pluralaz erabiliz gero –memorietan aurrera, egiten duen moduan–, berriz, “nire girgiluak”, grina sexualetik dependentziaren espetxera pasatzearen aldiak adieraziz.

Maitaleak utzi dueneko batean, Bilbora joan da *my bilboes* nonbait aurkituko



Angel Erro

IDAZLEA

@angelerro


duelakoan. Ez du urtea zehazten, baina 80ko hamarkadan gaude. Mirrenek ez du Euskal Herria ezagutzen, baina bai zerbait euskal musikaz. Itoiz taldearekin, esaterako, zaletu da bizkaitarrarekin egondako tartean. Izan ere, *Lau teilaturen* letra –lehen esaldia– da euskaraz dakien bakarra.

Bilbora iritsi berri, istilu batzuen lekuko da Helen Mirren: “Ez dut inoiz izu handiagorik pasa. Nireak eginak nituela uste nuen. Paralizatuta gelditu nintzen, nire ondo-ondotik harriek eta gomazko pilotek, edo balek, nola jakin, txistu egiten zuten bitartean”. Dena amaitzean polizia bat hurbildu eta izena eskatu dio. Mirren, blokeaturik, “hemen gaude eta poztutzen naiz eta ziur zure aita ere bai” erantzuteko baino ez da gai. Atxilo eraman dute eta gauza bera komisario eta are txandako epailearen aurrean ere. Giroa bertzen doa, gizonak gero eta haserreago daude. Azkenean fiskal batek ezagutu du (*Excalibur* filmeko Morgana!) eta gaizkiulertua argitu du.

Helen Mirrenen azaltzen du gerora jakin duela zer esaten ari zitzaien euskaraz poliziari, komisarioari eta epaileari. Matxino begirune-gabetzat joko zuten. Une batean ez darabil hitzok inork ez ulertu izanaren hipotesia.

* * *

Angel Erroren ohiko patxada ongi argitzen du pasadizo honek. Jakina denez, ohean eta kamisoian idazteko ohitura zuen, beti lapitzez eta beti entrega epeak gaudituta. Behin, Erro ohean idatzi artean, ezkonlaguna logelan sartu da, ARGIAtik deika eta deika ari direla herenegunerako testua noiz igorriko. Lurrean orrialde bat dago. Bizikidea makurtu eta ikusi du idazleak artikulu jenial bat osatua duela. Eskura ematera abiatu baina Errok diotso ez dela behar, lurrera makurtzeko nagiz zegoenez, beste bat idatzi duela, oraindik hobea, laguna ganberan sartu ahala amaitu berria. ■



Antton Olariaga

Beste 40 urte eta gero hau



Jon Alonso
IDAZLEA

Gure bizitzetan beti lagundu, laguntzen eta lagunduko digun eslogana da, zinez. Ez dut ezagutzen frustrazioa hitzetan paratzeko beste esaldi egokiagorik.

Lehen sintomak Madrilen eta Espainian nabaritu ziren, maiatzeko errebolta eta beren ahots matxinoen mezuak papereratzen zituzten luma berriak, Franco hil zenean jaiotakoak asko (urte bat gora, urte bat behera), trantsizio demokratikoa deiturikoa iruzur hutsa izan zela susmatzen hasi zirenean. Haiek baino askoz beteranoagoa den batek, Vincent Navarrok, laburbildu zuen ezinegona askotan errepikatzen duen sintagma bakar batean: “La (in)modélica transición”.

Gero, hurbilagora etorrira, batena eta bestearena irakurriz, ikusi genuen trantsizioa *bluff* bat izan zelakoa ez dela grisen aurretik korrika gogoratzan dugunon irudipena bakarrik.

Ramon Zallok, esaterako, euskal politikak trantsizioaren preso segitzen duela iritzi dio (*Berria*, 2015eko azaroaren 22a), trantsizioak utziriko “eredu demokratiko ahularen” ondorio kezgarrienetako bat izan dela, hain justu, “giza eskubideen degradazioa”; Francisco Etxeberriak, aldiz, dio trantsizioan ez zela ezer ukitu eta jarraitu dutela gauza berberak edo oso antzekoak egiten, eta ondare nazkagarri horrekin bizi garela: Bar-

ne Ministerioan jarraitzen duela diktadoreak; Miguel Sanchez Ostizek frankismoak utzi duen politika ulertzeko modu autoritario eta antide-mokratikoa islatzen dela gaur egun ere esaten du, frankismo garaiko ideiek gizarte oso bat “zipriztindu” dutelako eta hori belaunaldiz belaunaldi oinordetzan jaso delako. Gaur estatu polizial batean bizi garela dio, are gehiago, iraganetik askatu ezin den herri bat dela gurea, eta ezintasun hori lotzen du trantsizioan gertaturikoarekin, azken frankismoko politikari gehienek jarraitu zutelako: UCDeekin, Fragarekin, alderdi sozialistarekin... Eta politikoen atzean klase sozial oso bat zegoelako.

Ez da ohikoa, ordea, Francisco Etxeberriarenak bezalako hitzak entzutea, autokritika baterantz abiatutakoak: “Nik ere sarri neure buruari galde-tzen diot non egon nintzen une jakin hartan, zer pentsatzen nuen, zer esaten... Zoritxarrez denok dugu inpregnazio hori”.

Askoz ohikoagoa da trantsizioaren garaian hausturaren alde egon zirenei autokritika egin dezatela eskatzen dietenen ahotsak entzutea, etengabe, gaur bai eta bihar ere bai.

Denok egin beharko dugu autokritika, noski; erregimen berriari zilegitasun guztia berehala eman eta beste berrogei urte gehiagoko frustrazioa eragin dutenek ere bai, nik uste. ■

Pilota



Joanes Etxebarria
KAZETARIA

Asmatu behar banu, ez nituzke gehiengotzat joko aldizkari honen irakurlekoan pilota-zaleak direnak, edo oro har, kirolzaleak. Baina, Titin eta Retegi arteko final famatu hura ikusi –beharturik bada ere– eta segur gehienak zainetan, emozionaturik edo bederen harriturik liratekeela.

Kirolak dituen alde nazkagarriak zerrendatzearena behin eta berriz egin da eta ez du beste gogoetarako lekurik uzten, beraz utz ditzadan hegian. Alde ziragarri bat azpimarratzea baita hemengo xedea, nazkatuaren roletik.

Pilotan maila apalean ari izan denak badaki zein kirol zaila den, mentalki bereziki. Anitz

ziren, haur garaian, jokalaria hobeak, partida luzeak, eskuko min bortitzak eta arnas estu luzeak; partiduak jokatzeke egin beharreko distantzia luzeak eta zafraldi ikaragarriak. Eta pilota zinez maite ez zuenak ez zuen segitzerik. Beti bazen, Arabatik Zuberoara, Olaizola edo Irujo bat pilotari xumearen ametsak pikutara igortzeko zafraldi monumentalaren errepikapenez.

Seme eta alabengan beren ilusio frustratu guztiak proiektatu dituen gurasoak bezala ikusi dut Mikel Urrutikoetxearen garaipen bikoitza. Zafraldi baten erdian burua altxatu eta aitzina jotzea miresgarria baita. ■

Zaputzak gerran

Neure inguruetara begiratu, erreparatu, eta maiz fortunatzen zait zaharrenetakoa izatea. Ez da hau inork izan dezakeen sentipenik gozoe-na eta itxaropentsuena, ez mikatzena ere, galdutako hainbeste federen artean ilusioa eta bizipoz apur bat, oraindik ere, sentitzeko kapaz denarentzat.

Hogei urte nituen diktadorea hil eta haren diktaturapetik ateratzen hasi ginen; hogeita hiru, lehenbiziko aldiz, estranjeriako eta ametsetako herrialde inbidiatuetan bezala, neure botoa eman nuela; demokrazia genuen. Geroztik hona dozena bat hauteskunde nagusi ezagutuko ditut abenduaren 20koekin. Hutsik egin gabe eta hautu militanteak beste hauturik egitea eragotzi gabe, baina behin edo beste ez bada zalantzarik gabe, eman izan dut botoa ondorio ez beti gogokoekin. Hala ere, inoiz ez naiz damutu emandako eta egindakoez. Gero berandu izaten da egindakoaren pena eta damuak eraginkortasunik izateko.

Lurrindu ez diren orduko ametsak dezente aldatu zaizkit, baina gogorik eta guztiontzako ongizate nahia eta horretarako tresna egokien beharraren sentipenik ez zait falta, ez nuke huts egin nahi nire esku leudekeenetan. Ez daukat lehengo federik ez jendearengan, ez prozeduretan, ez ia ezertan.



Ramon Etxezarreta

PSE-EEKO KIDEA

@retxezarreta

Lurrindu ez diren orduko ametsak dezente aldatu zaizkit, baina gogorik eta guztiontzako ongizate nahia eta horretarako tresna egokien beharraren sentipenik ez zait falta

Handik atera eta etxeko terrorismoaren diktadurari kontra eginaz bozkatu dut berrogei urtean. Prezio garestia izan du horrek, lapurreta, ustelkeria, eskubide urraketa ugari, tortura... eta hala ere politikan fede izan dugu eta politika, horren alternatiba ezinbesteko zela uste izan dugu, hori uste nuen or-

daina. Joan zaigu gure azken diktadura eta akituta harrapatu gaitu momentuak. Dena emango zigula espero genuenak ez gaitu ase. Euskara politikatik atera behar omen da, bizikidetzak politika gainditu behar omen du, ez omen da berdintasunaren eta parekidetasunaren erabilera politikorik egin behar, oroimena berreskuratzea obligazio moral bat omen dugu, ez politikoa, sektarismoa interes politikoa omen, hautu politikoari ez omen zaio erreparatu behar. Ez dakit zergatik ez duten garbi esaten politikak enbarazu egiten diela eta debekatzea hobe dugula. Demokrazia zail eta konplikatu egiten zaie, deserosoa, eta apaiz ohiak eta apaiz-ke-riak jabe egin dira gurean, jende ona, jende zintzoa, baina ez demokrazia zaleak eta demokrazia praktikatzailerak, politikak gogaitu egin gaituela dioten arima jaleak.

Eta hauteskunde bat gehiago, bipartidismoak proposamen zehatzak egin beldur, populismoak bereizten lanak zeren alde edo zeren kontra dauden, eta gure abertzaleak itxoiten proposamen zehatza definitu ezinik baina bizirik mantentzen dituen haserrearen garrari piztuta eutsi nahian. Gerra jarduna aldatu da, gerra sartu digute hezurretaraino, gerran sartu gaituzte, sartu gara, gerran gaude... ■

LUR eta AMETO
Euskal Herriaren historia

EZAGUTU GURE HERRIAREN HISTORIA

IPUINAK

EZAGUTZA LIBURUA

GALDERA JOKOA

www.luretaametshistorian.eus

Kaxipolireta ikastolenelkartas elkar

ametsen liburua

el libro de los sueños | le livre des rêves | the book of dreams

Laurehundik gora preso eta erbesteraturen ametsak, eta ia berrogeita hamar artistarenak, liburu paregabe batean



ASTERO
Argitaletxea

960 orrialde koloretsu, eskuz idatzi eta margotutako testigantza intimoz beteak, espetxean, erbesteren edo deportazioan egindako argazkiak, eta euskal sortzaile entzutetsuenen artelanak

Nola eskuratu?



Zure **kioskoan** erreserba eginez (eman azpialdeko kupoa)



Internet bidez eskatuz:
www.ametsenliburua.info



Zuzenean **Durangoko Azokan** (abenduen 4tik 8ra), **Astero*** argitaletxearen bulegoetan (azaroaren 23tik aurrera), eta **liburu dendetan** (abenduen 9tik aurrera)

50€
kutxa gabe

55€
kutxarekin

* **Donostia:** Portuetxe 23, 2.-A | **Bilbo:** Kale Nagusia 2, 4.-A | **Urruña:** Hedagunea-Media Center; 8, ZA Martinzahrrenia

Erosleak betetzeko

Izena
Abizenak
Helbidea
Herria
Posta kodea
Herrialdea
Helbide elektronikoa
Telefonoa
Liburua kaxa gabe (50 €) ☐ Liburua kaxarekin (55 €) ☐

Salmenta lekuan betetzeko

Salmenta lekua
Herria
Herrialdea

DATU PERTSONALEI BURUZKO LEGE OHARRA Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakori jarraiki, erabiltzaileak baimena ematen du bere datuak TAI GABE DIGITALA, SL enpresa titular duen fitxategi batean sartzeko, eta datu horiek erabili ahal izateko. Erabiltzaileak, halaber, bere datuak kontsultatzeko, zuzentzeko, ezatzeko eta aurkatzeko eskubideak ezagutzen dituela adierazten du. Eskubide horiek Tai Gabe Digitala, SLren egoitza sozialean baliatu ahal izango ditu, honako helbide honetan: JF Gillsagasti 2-321, 20018-Donostia (Gipuzkoa).

LIBURUA JASOTZEKO AGIRIA

Eskatzailearen izen-abizenak

Salmenta lekua



ametsen liburua
el libro de los sueños | le livre des rêves | the book of dreams

ERREFUXIATU KRISI GLOBALA

Eta Europara iristean zer?

Errefuxiatuen gaia komunikabideetako lehen lerroetatik baztertu den arren, Europara milaka lagunak ihes egiten jarraitzen dute. Urtea hasi zenetik 800.000 errefuxiatu inguru heldu dira Alemaniara; Italian iheslariarentzat bideratutako dirua ez da iritsi eta ziurgabetasun egoeran bizi dira; Euskal Herrian, traba ugari aurkituko dituzte hona iristen direnek. Hiru errealitate horiei heldu diegu.



Martin Mendizabal Garai

@mendigarai

Hassan Siriatic dator eta hamaika hila-bete daramatza Alemanian. Siriako hiri-buru Damaskon emaztea eta bi semeak utzi zituen. Schierling-en izan gara bera-ekin, Regensburg hiritik 20 bat kilome-trora dagoen 7.000 biztanleko herrian. Duela urtebetetik hainbat errefuxiatu bizi dira bertan, eta horietako bat da Hassan.

Damaskon inprenta baten jabea zen, baina bonbardaketa batek enpresa eta etxea txikitu zizkiotenean ihes egin behar izan zuen. Europara iristeko pa-satakoak kontatu dizkigu: “1.500 euro ordaindu behar izan nituen beste 33 pertsonekin hamar baino eraman zitza-keen plastikozko ontzi batean Turkiatik Greziara iristeko. Bidaia-aren erdian motore-a hondatu egin zen eta Grezia-ko armadak erreskatatu gintuen”. Beti giza trafikatzailen menpe, herrialde heleniarraren eta Mazedoniaren arteko muga bost aldiz igarotzen saiatu ondo-ren Serbia, Hungaria eta Austria zehar-katu eta iritsi zen Alemaniara.

Herri txikia izanik, Schierlingek ez dauka Alemaniako beste hainbat toki-tan dauden errefuxiatuak hartzeko erai-kin handirik. Momentu honetan etxe pribatu batean bizi da Hassan, beste 19 siriarrekin batera. Schierlingera ailega-tu berri direnekin fenomeno hau oso ohikoa dela esan digu Uschi Grandelek. Bera errefuxiatuei laguntza eskaintzen

dion elkarte batekoa da, baita Alema-niako Euskal Herriaren Lagunak-eko arduradun eta Partizan Travel-eko kide ere. Asilo eskaera egin dutenak etxe pri-batuetan hartzea diru iturri bilakatu da hainbat herritarrentzat. Babariako Gobernuak errefuxiatuak hartuz gero jabeei pertsona bakoitzeko egunean 15 eta 30 euro tartean ordaintzen die: “Etxe batean 20 errefuxiatu sartzen ba-dira hilabetean 9.000 eta 18.000 euro artean irabaz dezakezu –esan digu due-la 15 urtetik Schierlingen bizi den Gran-delek–; herriko hainbat lagun bankuei etxeak erosteko kredituak eskatzen ari da: negozio borobila da”.

Siriara itzuli nahi duen galdetuta, Ale-maniak herrialdean gelditzeko eman dion aukeraz eskertuta dagoela eran-tzun digu Hassanek: “Gu ez gara sofan eserita egotera etorri, gu lan egiteko gogoz etorri gara”. Integrazioa, ordea, ez da batere erraza izan Hassanentzat. Edonola ere, eguneroko bizikidetzak herritarren aurreiritziak apurtzen la-gundu du: “Gaur da eguna bizilagunekin erlazio ona daukadana eta elkar lagun-tzen duguna”.

Hassani asilo eskaera berriki onartu diote. Momentu honetan gobernuak an-tolatzen duen aleman kurtsoarekin has daiteke, “orain arte soilik Schierlingeko laguntza taldeak antolatzen zituen kur-tsoetara joan nintekeen”. Beste hainbat

siriarrek jada lortu dituzte paperak eta gainontzekoek, Grandelen ustez, denbo-ra gutxi barru eskuratuko dituzte. Baina asilo eskaera aztertu bitartean ezin dute ez lanik egin ezta estatuak antolatzen dituen klaseetara joan ere, eta horrek egoera gogorrek sortzen ditu, errefuxia-tuen aldeko aktibistaren esanetan.

Lehen eta bigarren mailako migratzaileak

Denek ez dute Hassanen zorte bera izan. Schierlingera iritsi ziren lehen errefu-xiatuak Etiopiakoak ziren eta deporta-tuak izateko arriskuan daude. Schier-lingen, Balkanetako herrialdeetatik iritsitako errefuxiatuak ere bizi izan ziren eta herrialdetik kanporatu zituz-ten. Txetxeniar familia bat Schierlingen urtebetez izan ondoren deportatu egin zutela esan digu Grandelek: “Txetxenia-ra iristean errepresio handia jasan zu-ten. Poliziak gizona atxilotu zuen eta ez dakit emakumea bizirik ote dagoen ere”.

Babariako estatuan deportazioetara bideratutako bi etxe daude: bata Bam-bergen eta bestea Manchingen. “Erre-gistro zentroak” direlakoetan, *große-koalition* edo koalizio handiaren –CDU Alemaniako alderdi demokristauak, eta CSU eta SPD alderdi sozialdemokratek osatua– esanetan, herrialde germania-rrean gelditzeko “perspektiba gutxi” dutenak eta “gerrarik ez dagoen” he-



JAVI JULIO / NERVIOFOTO

lheslariak Greziako Lesbos irlan. Herrialde hura igarotzeko baimena lortuta, Atenasera eramango dituen ferryaren zain egunak igaro ditzakete portuan. Gero, Europako beste herrialdeetarakin bidaia luzea jarraitzen dute.

rrialdeetatik datozen asilo eskaeradunak pilatzen dituzte. Gutxienez halako beste hiru etxe eraikitzeako proiektuak onartu berri ditu gobernuak. Hala, hainbat hilabetez luzatzen ziren asilo eskaeren erantzunak hiru astetan erabakita izango dituzte hemendik aurrera. Emilia Müller CSUko politikariak esan du “politikoki jazartuak ez diren errefuxiatuak” herrialdetik kanporatuak izango direla –gehienak Balkanetako herrialdeetakoak dira, %40 estatistiken arabera–.

Alemaniko eskuina itsututa dago gero eta krisi ekonomikoak bultzatutako migratzaileak desberdintzen, hau da, errefuxiatuak mailakatzen. “Lehen mailako” migratzaileek –gehienak siriarrak eta klase ertainekoak– ikasketak dituzte eta herrialde germaniarrak interesa du horiengan. Statista estatistika atariaren arabera, gaur egun Alemaniako popu-

lazioaren ia laurdenak 60 urtetik gora dauka eta 2030ean zazpi milioi erretiratu izango ditu herrialdeak. Alemaniako Banku Zentraleko presidente Jens Weidmannek esana da “errefuxiatuen eskulan merkea” beharko dela etorkizunean ongizate ekonomikoa mantentzeko.

Azken hilabeteotan CDU eta CSUren arteko tentsioa areagotzen ari da, baita barne mailan ere. Angela Merkel Alemaniako kantzilerrak hain famatua egin den “*Wir schaffen es*” (Guk ahal dugu) lema behin eta berriro errepikatzen ari da, hau da, Alemaniara etortzen diren errefuxiatu guztiak hartzeko ahalmena dutela. CSUko presidente Horst Seehoferrek eta CDUko Barne Ministro Thomas de Maizierek esan dute ezin dela jende gehiago onartu. Migrazioaren gaiarekin uzkurragoa den CSUtik, berriz, hesi bat eraikitzea espekulatzen ari dira.

» HASSAN, ERREFUXIATU SIRIARRA ALEMANIAN:

“Gu ez gara sofán eserita egotera etorri, lan egiteko gogoz etorri gara”

Herritarren iritziak ere polarizatzen ari dira: gero eta gehiago dira imigranteen aldeko ekimenez gain, diruz, arropaz edota janariz laguntzen dutenak. Egun, arazoa ez da bolondres falta, lagundu nahi duen jendea koordinatzeko zailtasuna baizik. Baina aurkako iritziak ere gero eta nabariagoak dira: duela hiru urte Europar Batasuna eta

Euroaren aurka dagoen AfD alderdi eskuindarrak %5eko indarra zuen, bada egun bikoiztu egingo lituzke emaitzak, Alemaniako hirugarren indarra izate-raino.

Austria eta Alemaniaren arteko muga

Schärding eta Salzburgeko kanpalekue-tan Austriako armadako soldaduak ikus ditzakegu muga zaintzen. Duela zenbait astetik egunero milaka errefuxiatuk igarotzen dute Austriaren eta Alemaniaren arteko lerroa. Hasieran, errefuxiatu gehienek Alemania, Suedia edota Norvegia zituzten buruan, orain Austria ere asilo eskaera ugari jasotzen ari da.

Lagun askok jada bidaiaren zati go-gorrena igaro dute. Gurutze Gorriko eta Caritaseko kideak laguntza humanitaria koordinatzen ari dira, baina hala ere kaos handia nabari da kanpalekue-tan. Bidaian bizitakoak, mesfidantzak edota hizkuntza ezin ulertzeak asko zailtzen dute harremana. Mattar Gazatik dator, duela bi hilabete anaiarekin Israelen okupaziotik ihesi Palestina uztea erabaki zuen. Emaztea eta bi seme utzi ditu, baina behin Europara iritsita, familia ere hona etortzea pentsatzen ari dira. Bere helburua Belgikara iristea zen eta gurekin egon eta hiru egunetara Bruselan zegoen.

Bidea ez da batere erraza izan: erbestera eta egun gutxira Israeleko armadak bere lagunak onena hil zuen. Turkiara iristeko bisaren bila Egiptora joan ondoren, hegazkinez iritsi zen Istanbulera: "Istanbulen giza trafikatzai-leak edozein tokitan aurki ditzakezu: hoteletan, jatetxe edota komertzioetan". Milaka migratzailek bezala, Mattarrek plastikozko ontzi batean zeharkatu



Mattar eta bere ania Gazatik heldu dira Austria eta Alemania arteko mugara. Salzburgeko errefuxiatuentzako kanpalekuan herritarrek emandako arropa banatzen laguntzen ari dira.

MARTIN MENDIZABAL GARAI

zuen Turkia eta Greziaren arteko muga. "Bidaiaren prezioa ontzian jende gehiago edo gutxiago joan ahala merketzen edota garestitzen da: trafikatzai-leak eskaintzen dizuten ontzia plastikozkoa eta segurtasun gutxikoa bada 600 eta 1.000 euro artean ordaintzen duzu, hobeagoa bada, 3.000 eurotik gora".

2.000 euro ordainduta, 10 pertsonentzako lekua zuen plastikozko ontzi batean bidaiatu zuten beraiek, beste 40 lagunekin: "Europara datozen errefuxiatuen %99ak ontzi merkeenak aukeratzaren dituzte, horregatik hiltzen dira horrenbeste" dio Mattarrek. Giza trafikatzai-leak labanak eta armak zituzten, eta Mattarrek eta anaiak nabigatzen zekitenez, ontzia gidatzera derrigortu zituzten. Trafikatzai-leak Mattarren anaiari gainean zeraman gutzia uretara bota zioten, mugikorra, ordenagailua eta dirua, besteak beste. Greziarako bidean

ehunka ontzi ikusi zituztela ere kontatu digute: "Uretan hilotzak ikusten genituen, baina gindoazen baldintzetan ezin genuen ezer egin".

Greziako Mitiliniki irlara iritsi zirenean masifikazioa handia zela diote palestinar gazteek. Kanpamentuan, herrialdean 15 egun egoteko baimena eman zieten, baina errefuxiatu gehienak ez dira hor gelditzen, hurrengo egunean Mazedoniarako bidea hartzen dute.

Hassan siriarren iritzia partekatzen du Mattarrek: "Merkel jarrera egokia izaten ari da errefuxiatuekin. Gu Alemaniara lanera gatoz, ez etxean ezer egin gabe egotera. Errefuxiatu askok ikasketak dituzte: medikuntza, zuzenbidea, ingeniariaritz... Hori baliatuko dugu alemaniar ekonomia indartzeko". Orain Alemaniara eramango dion autobusa hartzeko zain dago, bizitza berri bat hasteko azken aurreko geltokian.



45. BINAKAKO ERREMONTETXAPELKETA NAGUSIA 2015

Urriak 31
abenduak 19

JAI-ALAI
galarreta

ostegunero
eta
larunbatero

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

ORIAMENDI
2010



gaztezulo



943 457 250
harpidetza@gaztezulo.eus



#harpidetza22
euro baino ez urtean

Integrazio politiken porrota

Italian zein etorkizun daukate asilo politikoa eskuratzen duten errefuxiatuek? Bruselatik bidaltzen den dirua ez doa iheslarien beharretara. Turingo esperientzia egin behar ez denaren adibidea da.



Ane Irazabal
@Anelrazabal

Olinpiar kirolarien egoitza izateko eraiki zen, baina gaur egun 1.000 errefuxiatu baino gehiagoren bizitokia da. Turingo MOI edo merkatu ohia, huts egindako gentrifikazio prozesu baten irudi garbia da. Bertako eraikin abandonatuak 30 herrialdetatik ihes egindako gazteek okupatu dituzte. Saharaz Hegoaldeko errefuxiatuak dira gehienak, emakumeak, gizonak eta haurrak. Udaberri arabiarrek eztanda egin zuenean amets europarrari ekin zioten. Lau urteren ondotik, askok babes politikoa eskuratu dute, baina bizitza berri bat hasteko aukera ukatu diete.

Bishara Txadeko da eta 2011n iritsi zen Libiatik Italiara. Integrazio programen porrota salatu du: “2013an amaitu egin zen iheslarietako laguntzeko iristen zen dirua, eta egun batetik bestera, kalean aurkitu ginen. Gehienera ez ziguten italiarra erakutsi eta erakunde publikoek euren ardurari iskin egin zioten”. Hala, Turinaren trabatuta zeuden ehunka iheslariak erabaki zuten 2006ko neguko olinpiar jokoetarako eraiki ziren instalazio abandonatuak okupatzea. “Diru publikoaren kudeaketa ilunaren isla dira”, azaldu du Niccolò Vasile ekintzaileak, “eraikinak korrika eta presaka eta kalitate txarreko materialak erabiliz eraiki ziren, beraz, olinpiar jokoak amaitzean inork ez zituen apartamentuak erosi nahi izan”. Vasilek italiar askori buruan dabilkion galdara plazaratu du: nora joan da 2011n errefuxiatuei harrera eskaintzeko bideratu zen laguntza europarra? Ekintzaileak badu erantzunik: “Afrika Iparraldeko Larrialdia izeneko programa martxan jarri zenean Italiako Gobernuak hainbat elkarte osaturiko partzuergo bati eman zion errefuxiatuei laguntzeko diruaren kudeaketa. Diru hori desagertu egin da”.

Apartheid sozialaren aurka

Horrenbestez, kirolarien egoitza ohia autogestio proiektu bat bilakatu da. “Turingo Udalaren eta eskualdeko gobernaren laguntza, ura eta argindarra ordaintzera mugatzen da. Ur hotza, hori bai”. MOIko eraikinak zatika erortzen ari dira eta apartamentu bakoitzak mundu bat islatzen du. Diru pixka bat aurreztu duten familiek sukalde elektrikoak, ur-berogailuak eta garbigailuak dituzte. Beste batzuek, berriz, soilik lurrean jarrirako koltxoak”.

Edificio bakoitzaren beheko solairuan, errefuxiatuek hainbat zerbitzu martxan jarri dituzte, besteak beste jangela, zapata-denda eta informatika gela. 30 ekintzaile italiarrez osaturiko talde batek laguntza eskaintzeko bulegoa ireki du: “Aholkularitza legala eskaintzen duten abokatu batzuk ditugu, italiarra eta ingelesa ikasteko eskola zabaldu dugu eta gida-baimena eskuratzeko ikasgaiak ematen ditugu. Halere, guretzat lehentasuna da iheslarietako lana bilatzen laguntzea”, adierazi du Vasilek.

» NICCOLÒ VASILE, EKINTZAILEA:

“Italiako Gobernuak hainbat elkarte osaturiko partzuergo bati eman zion errefuxiatuei laguntzeko diruaren kudeaketa. Diru hori desagertu egin da”

Boluntarioei oso garrantzitsua iruditzen zaie iheslariak gainontzeko hiritarrengandik ez isolatzea: “Turingo herritar askorentzat hobe litzateke errefuxiatuak ez ikustea, baina guk ez dugu apartheid soziala bultzatu nahi. MOIaren ghetizazio prozesuak biziki arduratzen gaitu”. Izan ere, eremu guztia polizia eta militarrez inguratuta dago. Vasileren aburuz, “bizilagunen aurrean erakutsi nahi dute ordena publikoa eta segurtasuna bermatuta daudela, baina segurtasun indarren presentziak tentsioa areagotzen du”.

Legezko esklabotza

Bisharak uste du pobrezia, langabezia eta integrazio falta eskutik doazela: “Ez dugu Italian geratu nahi, baina zeharo blokeatuta gaude. Hemen eskuratu dugu asilo politikoa, beraz, hemen bizitzera derrigortu gaituzte. Arazoa da oso zaila dela lana aurkitzea. European zehar bidaiatzeko baimena badaukagu, baina soilik hiru hilabetez eta turista gisa”.

Vasilek ere gogoz kritikatu du Europako integrazio politiken malgutasun falta: “Gazteak nazkatu egiten dira egun guztia ezer egin gabe egoteaz. Askok alde egiten dute, baina beste herrialde batera iristean bueltan ekartzen dituzte edo klandestinitatera igarotzen dira”.

Zorte gehiago dutenek behin-behineko kontratuak lortzen dituzte uzta bilketetan. Kiwiak Piemonten, sagarrak Trentino-Adigen, tomateak Apulian eta laranjak Calabrian. Egunko batez-beste 30 euroren truke, MOIko errefuxiatuek Italia zeharkatzen dute unean uneko fruituak eta barazkiak jasotzeko. “Krisi humanitarioa hasi zenez, okerrera egin dute lan baldintzek. Lurren jabeek soldatak jaitsi dituzte”.



COSIMO CARIDI

Irudian, MOlko eraikineko biztanleak. Eremu guztia poliziaz eta militarrez inguratuta dago eta segurtasun indarren presentziak areagotu egiten du tentsioa. "Turingo herritar askorentzat hobe litzateke errefuxiatuak ez ikustea, baina guk ez dugu apartheid soziala bultzatu nahi", dio Niccolò Vasile ekintzaileak.

te, baina lanorduek handitu. Badakite errefuxiatuak edozer gauza egiteko prest daudela", adierazi du Mohamed izeneko etorkin marokoarrak. Mohamedek hamar urte daramatza Italiako eskualde gehienetan uztak biltzen eta ez zaio egungo egoera gustatzen: "Errefuxiatuak barrakoietan bizi dira eta baldintza jasanezinetan lan egiten dute. Ezkutuko legezko esklabotza da".

Bishara ados dago: "Ez dakit beste aukerarik ba ote dagoen, nik ez dut ikusten. Asilo politikoa eskuratu nuenean ziur nengoen dena errazagoa izango zela, halere, esplotazioak eta miseriak bere horretan jarraitzen dute".

Nolanahi ere, Italian alarmak piztu dira azkenaldian. Iragan abuztuan lau errefuxiatu hil ziren Apulian mahatsa biltzen ari zirela intsolazioak jota, eta giza es-

kubideen aldeko erakundeek Erromako gobernuaren laguntza eskatu zuten. Saluzzon, Piemonteren bihotzean, proiektu berri bat jarri da martxan boluntario italiarrek errefuxiatuen lana ikuskatu eta gehiegikeriak sala ditzaten. Iheslari gehienek, ordea, aspaldi galdu zuten bizitza duin bat izateko esperantza. Bisharak argi dauka: "Europak huts egin digu. Ametsa, amesgaizto bihurtu da".

EL OTRO LADO DE LA CAMA

komedia musikal arrakastatsuenak
10€ zenbakitua

Txartelak saial Kuxabaneko zerbitzuan eta Zalla zine-antzikiko leihatilan

ZALLA
zine-antzikia

abenduak **12**
20:00

Silvia Gambino
Alex Casademunt
Loreto Valverde
José Manuel Pardo

zalla.org
facebook.com/Zallainfo
[@zallainfo](https://twitter.com/zallainfo)
youtube.com/zallainfo
zallainfo.zalla.org
issuu.com/zallainfo
info@zalla.org

Euskal Herrian ere zail dute errefuxiatuek

Euskal Herrian asiloa eskatzen dutenek zein bide egin behar dute, zein baldintza eta egoeratan? Eta Europar Batasunak bideratuta datozenen kasuan, ezberdina al da prozesua? Errefuxiatuen Laguntzarako Euskadiko Batzordearen zuzendari Patricia Barcelonari galdetu diogu.



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Europar Batasunaren eskutik, hamar lagun baino ez dira iritsi Euskal Herrira oraingoz (hiru eritrear Bilbora, eta afganistandar, eritrear, tajikistandar, aberri-gabe bana eta hiru sudandar Baigorri-ra). Baina ohiko bideetatik iaz adibidez 125 bat asilo eskaera tramitatu zituzten Hego Euskal Herrian (gehienbat, Saharaz Hegoaldeko herritarrak). Ohiko prozedura Europar Batasuneko herrialde guztietan berdina dela kontatu digu Patricia Barcelonak, Genevako Hitzar-menear oinarritua. Dena den, herrialde batzuek ez dituzte zuzentarauak betetzen eta Grezia adibidez behin baino gehiagotan ohartarazi du EBk, gutxien-goak ere ez bermatzeagatik.

Gure kasuan, Espainiako eta Frantziako estatuek dituzte eskumen guztiak gai honetan, eta antzera jokatzeko da bietan; ereduak da aldatzen dena –aterpea pisan edo zentroetan ematea, esaterako-. Iritsi eta asiloa eskatzen duen herritarrak bi babes galdegin ditzake: errefuxiatu izaeraren aitortza eta babes subsidiarioa. Hilabeteko epean, eskaeraren tramitea onartu edo ez erabakitzen da, eta lehen fase hori gainditzekotan, behin betiko erabakia hartu arteko prozedura abiatzen da. Bitarte horretan, errefuxiatuari bermatu behar zaizkio bere eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa, dokumentazioa, aterpea eta oinarritzeko behar sozial, juridiko eta sanitarioak. “Teorian, legeak dio erabakia hartzeko prozedurak 6 hilabete iraungo dituela, baina 5 urte iraun dituen kasuak ere baditugu. Eskatzailearen jatorriak badu zerikusirik: Gobernuak aurreikusten duenean jatorriko herrialde horretan dagoen gatazka epe ertain

nean konpondu daitekeela, konpondu arte itxaroten du behin betiko ebazpena emateko. Eta ebazpena izango da asiloa ukatzea, gatazka konpondu dela arrazoituz. ‘Zuhurtzia irizpidea’ deitzen duen hori askotan aplikatu du Espainiako Gobernuak, Ukrainarekin eta Afrikako herrialde ugariarekin, Maliren kasuan, Boli Kostarenean... eta horregatik daude hainbeste espediente erabakitzeko horrenbeste denbora irauten dutenak”.

Erabaki bitartean, gure artera etorri denak ez du egoera samurra bizi: ezin du lanik egin eskaera prozedura hasi eta sei hilabete pasa arte. “Praktikan –gehitu du Barcelonak–, sei hilabete horien ostean ere zailtasun handiak dituzte, enpresa eta partikularrek sarri ez baitute haien dokumentazioa ulertzen, behin-behinekoa dela ikusten dute. Gainera, behin betiko ebazpenaren zain, ziurgabetasun hori antsietate handiz bizi du askok –ukatua izateko aukeraren beldur–, eta batzuek eskaera bertan behera utzi eta alde egiten dute azkenean, erantzunik ez dutelako jasotzen”. Behin espedientea ebatzita, hiru aukera daude: errefuxiatu estatutua ematea, arrazoi humanitarioak aitortzea, edo ukatzea. Ukatuz gero, paperik gabeko migratzaile bihurtuko litzateke. Horrek dakarren guztiarekin.

Ezberdina da Europako herrialdeetan birkokatze EBk bideratu behar dituen 160.000 errefuxiatuen kasua. Prozedura azkarragoa da: ez dira zuzenean Euskal Herrira iritsi asilo eske, Europa iritsi dira eta lehenengo urratsa emana dago –eskaeraren aukera onartua dago-. Hortik aurrera, “espero dugu larrialdi prozedura aplikatuko zaiela eta gehienez hiru hilabetetan hartuko dela haien gaineko behin betiko erabakia”, dio Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordeko zuzendariak.

» Urteak iraun ditzake asiloa onartzeko prozesuak. Ebazpenaren zain, lan egiteko arazoak eta ziurgabetasuna dira nagusi

Batzordea bera, Gurutze Gorria eta errefuxiatuekin lan egiten duten elkar-teak arduratzen dira asiloa eskatu dutenen babes sistema kudeatzeaz –aterpea bilatzeaz eta abar–, baina lehen aipatu moduan, estatuetako gobernuena da eskumena. “EAEko eta Nafarroako gobernuek eta tokian tokiko udalek egin dezaketena da sistema hobetu, hutsuneak dituelako; bai iristen direnetik babes sistema sartzen diren arte, bai gero hortik ateratzeko, eta bai babes sistema horren barruan daudenean ere, batzuetan ez dagoelako baliabide nahikorik dituzten premiei erantzuteko”.

Paris, aurreiritziak eta elkarbizitza

Patricia Barcelonaren hitzetan, “Parisko atentatuek batzuen xenofobia berpiztu dute, baina elkartasun olatu handi bat ere ikusten da, eta hori guztia da baloratu eta azpimarratu behar duguna. Errefuxiatuen birkokatzena modu antolatuan egiten bada, erkidego eta herri mailako instituzioen inplikazioarekin, atzerri-koenganako eta errefuxiatuenganako begirada baikorra gailendu daitekeela uste dut. Burua immigrazioarekiko elementu negatiboz bete nahi izan digute, aurreiritziz josi gaituzte, eta unea izan daiteke horri buelta eman eta dagoeneko errealitatea den aniztasuna baloratzeke, elkarbizitzaren mesedetan”. ■

bildu ERABAKI*ra*

eman botoa
 **ehbildu**

Iker Urbina

Arabako zerrendaburua
kongresurako

Lorena Lopez de Lacalle

Arabako zerrendaburua
senaturako

Onintza Enbeita

Bizkaiko zerrendaburua
kongresurako

Irantzu Varela

Bizkaiko zerrendaburua
senaturako

Marian Beitialarrangoitia

Gipuzkoako zerrendaburua
kongresurako

Urko Aiartza

Gipuzkoako zerrendaburua
senaturako

Sabino Cuadra

Nafarroako zerrendaburua
kongresurako





IGOR GOIKOLEA

Marc August Muntanya, Aturem Fracking

"KATALUNIAN IA DEBEKATUTA DAGO FRACKINGA ERABILTZEA, BAINA 'IA' HORI EZABATU NAHI DUGU"

Katalunian frackinga debekatu ez duten arren, ia ezinezkoa da zulaketa baimenak lortzea. Horren erantzuleetako bat Aturem Fracking plataforma da. Marc August Muntanya taldeko bozeramaileetako batek azaldu digunez, egun batetik bestera mehatxuarekin topo egin zuten parez pare; politikariei egindako presioari esker, zulaketa asmoak bertan behera utzi eta Kataluniako hirigintza-araudia aldatu zuten. Hala ere, mehatxua ez da guztiz desagertu Muntanyaren ustean.



Igor Goikolea

@Igoikolea

Euskal Herrian frackingaren arriskuak ezagutzen ditugu. Katalunian, zehazki, zeintzuk dira frackingak dituen arriskuak? Frackingak arrisku handiagoak eduki ditzake eskualde batzuetan, baina argi dugu ez dela tokian tokiko kontua. Fracking Ez plataformak erabilitako leloa

gure egiten dugu: "Ez hemen, ez inon". Basakeria honen aurka lanean dihardugun guztion elkarlana ezinbestekoa da.

Mendiak zulatzeko arrisku handienak Gironan daudela salatu duzue behin baino gehiagotan. Zer dago bertan Kataluniako beste eremuetan ez dagoena?

Arrisku handiena Riudaura herrian dago [bertakoa da Muntanya]. 60ko hamarkadan 600 bat biztanle zituen Riudaurak, baina petrolio ateratzeko

bost dorre zeuden, herritar guztiei kalte egiten zietenak. Frankismoa amaitzeaz zegoela proiektu gehiago zeuden mar-txan, 80ko hamarkadan bertan behera gelditu zirenak. Bazirudien ez zegoela mehatxurik, baina orain dela urte batzuk gure mendietan eta gure etxe azpian petrolio zegoela argitaratzen hasi ziren komunikabideak. Ez dakigu nondik lortu zuten informazioa; geologoen ustez, oso petrolio gutxi dago Riudauran eta Girona osoan.



Riudaura inguruko basoetako zuhaitzetan agertutako markek ohartarazi zieten herritarrei zulaketa lanak hastear egon zitezkeela.

MARC AUGUST MUNTANYAK UTZITAKOA

Hainbeste ikerketaren ostean, Katalunian frackingaren atzean nor dagoen agerian uztea lortu duzue zuek.

Gureak eta bi egin behar izan genituen. Eta hala ere, hainbeste urteren ostean, oraindik ez dakigu ziur nor dagoen atzean. Gure kasuan, Riudauran, Teredo Oils izeneko enpresa batek eskatu zuen baimena. Madrilen bulegoa zuen enpresa txikia zen, 3.000 euro baino gutxiagoko kapital soziala zuena. Ikertu eta Montero Energy-rekin loturak topatu genizkion Teredo Oils-i.

Orain pare bat urte-edo oso egun nahiak izan zenituzten Riudauran eta albo-ko herrietan. Bazirudien berehala zula-tzen hasiko zirela.

Egun batetik bestera zuhaitzetan markak ikusten hasi ginen. Bazirudien zulatzen hastekotan zeudela. Presa handia geneukanez, lanean hasi ginen; zenbait herritako batzarretan ia biztanle guztiek parte hartu zuten. Zaharrenek zaintza lanak egiten zituzten eguneko 24 orduetan, zulatzen hasten ez uzteko. Oso harro nago egindako lanaz, ez soilik frackinga ia debekatu delako, baizik eta antolakuntza irakasgai bat eman genuelako. Ideologia eta pentsamendu politiko oso ezberdina zuten 15 urteko gazteek eta 80 urteko aitona-amonek elkarrekin erabakiak hartzen zituzten asanbladetan.

Haustura hidraulikoa debekatzea lortu ez duzuen arren, hirigintza-araudia aldarazi duzue. Nolakoa izan zen horrainoko prozesua?

Bost pausotan laburbilduko nuke. Lehenik alderdi politikoekin bildu ginen herrietan. Ideologiak ideologia, inork ez zuen frackingik nahi. Herritar asko militanteak dira, eta beren alderdietako zuzendaritzari presio egin zieten prozesua gelditzeko. Ondoren batzorde bat sortu zen Kataluniako Parlamentuan, CUPek bultzatuta. Alderdi guztiak izan ziren bertan, nahiz eta denek ez zuten argi zer jarrera hartuko zuten. Guk argi genuen behintzat ERC, ICV eta CUP gure alde zeudela. Hirugarrenik, batzordearen lehenengo erabakia etorri zen: baimenak debekatzea. Ezin izango zen ikerketarik egin, eta beraz zulorik ere ez. Debekua justifikatzeko, "arrisku" hitza erabili zuen batzordeak. Laugarren urratsa frackingaren debekua eskatzea izan zen, baina hori oso zaila da eta orduan ez zen aurrera atera. Hala ere, baliteke hurrengo legealdian frackinga behin betiko debekatzea. Azkenik, hirigintza-araudia goitik behera moldatu zen. Aldaketaren ondorioz, enpresentzat oso zaila da Katalunian haustura hidraulikoa erabiltzea.

Mehatxuak oraindik badirauela uler daiten zure hitzetan.

Bai, noski. Hasteko, frackinga ez dago guztiz debekatuta. Ia ezinezkoa da teknika erabiltzea, baina "ia" hori ezabatu nahi dugu. Eta bestalde, enpresen eta enpresariendarra ikusi dugu: lurra mugitzeko gai diren moduan, bulegoetan legea goitik behera aldatzeko gai dira.

EAEn Herri Ekimen Legegilea jarri zuen martxan Fracking Ez plataformak, eta sinadura bilketaren ostean, frackinga debekatzeko eskaria Gasteizko Parlamentuan sartu zen. Katalunian, aldiz, ez da horrela izan.

Denbora izan bagenu, gustatuko zitzaidan halako bat martxan jarri izana. Baina gure egoera oso larria zen, ez genuen denborarik sinadura bilketari ekiteko. Ezberdina zen, baina gure herria defendatzeagatik edozer egiteko prest geunden, baita gure alderdietako politikariek formak galtzeko prest ere. Eta hala izan zen: formak galdu genituen presioa egiten ari ginenean, onartzen dut. E-maila ikusita, ez naiz damutzen. ■



Abenduak 18

ostirala 21:30



basterokulturgunea.blogspot.com.es | 943 303 540



Alegiako Udala www.alegia.eu

Alegia euskararekin bat



Enparantza nagusia z/g · 20260 ALEGIA
Tel. 943 651 087 · Faxa: 943 654 815

Amurrioko Udala

Juan Urrutia plaza, z/g

01470 AMURRIO

Tel.: 945 89 11 61

Faxa: 945 89 16 45

amurrio@amurrio.org

www.amurrio.org



DURANGOKO EUSKARA ZERBITZUA

Barrenkalea, 17

48200 DURANGO

Tel.: 94 603 00 16

Fax: 94 603 00 26

euskera@durango-udala.net

www.durango-euskaraz.net



DURANGO Udala · Ayuntamiento

ERREMONTEA ERABERRITZEA GAZTEEN ESKU

Erremontisten koadroari begiratua ematea aski da erremontea gatzetzen ari dela ikusteko. Izan ere, profesionalen erdiak ez ditu 25 urteak gainditzen. Horien artean daude Josetxo Ezkurra, Endika Urrutia, Endika Barrenetxea, Ander Goikoetxea, Imanol Ansa eta Ibai Martirena, erremontearen habia den Galarreta frontoian solaskide izan ditugunak. Kirol honen berezitasunez, krisiak eragindako filosofia aldaketaz eta jendea erakartzeko zailtasunez mintzatu zaizkigu.



Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

@eagirrebeng

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Urruti gelditu da 80 eta 90etako goraldia. Urruti frontoi bete eta apustu etengabeen zoramena. Mende berriari gainbehera zantzuakin ekin zion erremontek, baina oraindik erremontisten artean oparotasuna nagusi zela. Pilotari asko soilik erremontetik bizi ziren, eta ez edonola. Alabaina, krisi ekonomikoak harekin guztiarekin amaitu zuen. Apustuak jada negozio ez zirela, erremontek bideragarritasun oro galdu zuen. Urteak aurrera joatearekin batera egoerak okerrera egin, eta 2010ean galzorian izan zen, Euskal Jai-Galarreta enpresa kudeatzaileak atek itxi zituenean. Honen lekukoa Oriamendi 2010-ek hartu zuen, baina geroztik bost urte igaro direnean, erremontek ataka estuan jarraitzen du. Kinka larrian, baina orain dela urte batzuk ez bezala, itxaropentsu. Izan ere, belaunaldi berri bat sartu da erremontean, kirola gatzetzeaz landa, aldaketa haizeak ekarri dituen.

Gazte horiek ez dute krisiaren aurreko luxurik ezagutu; erremontea jada egoera oso makurrean zela bilakatu dira profesional. Hori dela-eta, jokatzeko hasi ahala balio jakin batzuk barneratu dituzte: kirolagatik maitasunagatik lan egitea, kantxa barruan zein kanpoan umiltasuna mantentzea... Iraganeko moduekin kritikoa den filosofia bat ikasi

dute, eta horrek, Galarretan mintzakide izan dugun seikotearen arabera, "plus bat" ematen die pilotari bezala. Erremontea, beraz, eraberritzen hasia da, eta gazteek deritzotenez, aldaketa etorkizunean gauzatuko bada, euren eskutik izango da: "Gauzek berriz ere gora egiten dutenean, gurea izango da orain barneraturiko balioak transmititzeko ardura. Hori egin ezean, orain lorturikoak ez du ezertarako balioko".

Transmisioa gerta dadin lehen baldintza da balio horiek nori igorri edukitzea. Eta badirudi uneon harrobiak bizi duen egoera ez dela onena, hainbat gaztek profesioaletara jauzi egin dutenez, jende kopuruaren aldetik afizionatu maila-profesionalen azpitik dagoen bakarrai *impasse* egoeran baita. Erremontista gazteen aburuz, aitzitik, egoera ez da larritzeko modukoa: "Egia da orain ba-

» **Gazte hauek ez dute krisiaren aurreko luxurik ezagutu. Jokatzeko hasi ahala balio jakin batzuk barneratu dituzte, iraganeko moduekin kritikoa den filosofia bat**

tik bat Gipuzkoan afizionatuak nahiko zintzilik gelditu direla, baina begirada atzera botata ohartzen zara beti gertatu izan dela antzeko zerbait. Erremontea faseka doa: gazteek debutatzean, afizionatutan hutsunea sortzen da".

Oraindik bada zer aldatu

Orain, beraz, jende berria erakartzea da erronka. Nola? Seikotearentzat itaun horrek erantzun erraza du: gazteak frontoira eramanda. "Behin partida bat zuzenean ikusita, jendea liluratu egiten da. Zer esanik ez frontoiaren barrenak erakutsi, eta zesta janzten uzten badiotzu". Haatik, jakitun dira erremontek berezko hainbat oztopo dituela. Esaterako, bere ezaugarri bereziak direla-eta, gorputzarentzat ez da ona 16 urte izan baino lehen hastea. Horregatik, erremontean jokatu nahi duten gazteak aurkitzea "lan nekeza" da, adin horrekin gazte gehienak jada beste kirol batean murgildurik izaten baitira. "Gainera, erremontea hasieran kirol oso zaila da, eta horrek ere jendea atzera botatzen du. Baloi bati ematea erraza da, baina xistera kontrolatzea...".

Alta, oztopo guztiak ez ditu berezko: pilotariak erremontean dute ikuspegiak ere kalte egiten dio sustapenari. Izan ere, sei erremontista gazteek azaldu digutenez, erremontean jokatzeko ez da ulertzen profesioaletara iristeko ez bada. Horrek bi ondorio dakartza, biak ere ezkorrak: gazteentzat erremontea



Ezker-eskuin, zutik: Endika Barrenetxea eta Ibai Martirena. Eta belauniko eta eserita, ezker-eskuin: Imanol Ansa, Josetxo Ezkurra, Endika Urrutia eta Ander Goikoetxea. "Kirol gutxi dute erremonteak duen abiadura. Alde horretatik, kirol ikusgarria da, esku-pilota baino askoz ere biziagoa. Txundigarria da ikustea nola zinetika probestuta sekulako bizitasuna eman ahal zaion pilotari", esan digu seikoteak.

erakargarri ez izatea, eta afizionatutan gelditzen diren pilotariei frustrazioa eragitea, horietako askok azkenean uzteraino. "Jokabide hori iraganetik dator. Azkenaldian gauza asko aldatu izanagatik, pentsamolde horrek erroturik dirau pilotari guztiengan. Erremontea eraberritu nahi badugu, hau ere aldatu beharreko zerbait du: erremontera iritsi ahal gazteei zaletasunagatik jokatzeko irakatsi behar diegu, ez profesional bilatzeko nahiagatik".

Kirol "bartzertua"

Erremontearen sustapenez hitz eginerakoan, erremonte eskolen lana ere ezinbestean aipatu beharrekoa da. Erremontista gehienak eskolak dauden herrietakoak (Doneztebe, Hernani, Azpeitia...) edo ingurukoak izan ohi dira, horien eraginkortasunaren erakusgarri. Gazteek garbi dute: eskola gehiago

irekita erremonteak "zentu guztietan" egingo luke gora. Haatik, gauzak ez ei dira horren errazak, "enpresak ez baitu dirurik horrelako inbertsioak egiteko". Hori horrela, federazioaren inplikazio eza deitoratu dute: "Kirol ia guztietan eskolak sortzearen ardura federazioarena da, eta ez enpresarena. Federazioak erabat baztertuta dauka erremontea".

Telebistak ere, erakusleho mediatiko nagusia izaki, zeresan handia izan lezake erremontearen hedapenean. Aitzitik, kasu honetan ere bazter utzita daudela salatu dute, ETBk soilik esku-pilotari so egiten diolakoan. Uneon ETB4n urtean 14 emanaldi eskaintzea dute hitzarturik, baina garbi dute horrek ez duela askotarako balio: "Jendeak zein kanaletan dauka ETB4? Gainera, ordu txarrenetan emititzen dira partidak. Esaterako, ETB1en *Gol festa* ematen ari direnean". Irtenbide gisa partidak osti-

raletan ETB1en -esku-huskako partidaren aurretik- emititzea proposatu dute.

Eta "parerik gabekoa"

Oztopoak oztopo, seikoteak garbi dauka besoak gurutzatu eta kexaka aritzeak "ezer gutxirako" balio duela. Jarrera aktiboa aldarrikatu dute: "Gure esku dago lagun eta ingurukoak frontoira gertura daitezen animatzea". Baina zergatik aukeratu behar dute erremontea kirol askoz ere mediatikoagoen aitzinetik? Bada, gazteen iritziz, erremontea "parerik gabekoa", "berezia" delako: "Kirol gutxi dute erremonteak duen abiadura. Alde horretatik, kirol ikusgarria da, esku-pilota baino askoz ere biziagoa. Txundigarria da ikustea nola zinetika probestuta sekulako bizitasuna eman ahal zaion pilotari. Eta horretaz guztiaz jabetzeko onena frontoira etorri eta erremontea bertatik bertara ikustea da". ■



"Egia Euskaraz Bizi Nahi Dugulako" ekimena aurkeztu zuten azaroaren 28an Donostiako Egia auzoan. Argazkian ekimena babestu duten norbanakoak eta elkarteak ageri dira.

EGIA EUSKARAZ BATZORDEA

ASTEBETEZ EUSKARA HUTSEAN ARITZEA ZER DEN PROBATUKO DUTE EGIATARREK

Goizetik gauera euskaraz bizitzen saiatuko dira egiatarrak. Astebeteko konpromisoa hartuko dute eta koadernotxoan idatziko dituzte bizipen pozgarriak, frustrazioak eta edonolako gogoetak. Donostiako Egia auzoko 18 elkarte eta talde ontzat jo dute ekimena.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Egia Euskaraz Batzordea da ekimenaren bultzatzaile, eta haien ustez, ekimenaren nolakotasunaren "errudun" Lutxo Egia da. Bilbotar idazleak hilabete osoa igaro zuen euskaraz soilik hitz egiten eta *Berria* egunkarian egunero hausnarketak idatzi zituen.

Egiatarrek Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen dute urtero, baita bi urtez behin –Korrika ez denean– Egia Euskaraz Eguna ere. Haratago joan nahi zuen ordea Egia Euskaraz Batzordeak. Hala, zazpi astez txandaka eragileak –auzoko talde eta elkarteak– jo eta su euskaraz arituko dira, harik eta komunikazioa oztopatu arte. Dendaria izan daiteke, senidea edo dantza taldekoa, euskaraz egiten ez duena baina dena

ulertzen duena. Hala ere, halakoetan gaztelaniaz egiteko joera dago. Astebete horretan halako inertiak apurtzeko aukera asko izango dira. Euskaraz ez dutela ulertzen diotenak ere parean izango dira. Haiek motibatzea ederra litzatekeela uste dute Batzordekoek. Ez jakin auzotarrek, dendariak eta bestelakoek zein jarrera hartuko duten astebetez euskaraz bizitzeko konpromisoa hartu duten horien aurrean.

MARIXOL AGIRRE: "ASTEBETEKO SAIOA ERRONKA IZANGO DA NIRETZAT"

Otsailaren 26tik martxoaren 4ra, bizi den auzoan, Egian, egun osoz euskaraz egiten saiatuko da Marixol Agirre Begiristain. Halako ariketak aurrera begira euskaraz aritzeko indarra emango diola uste du, eta jakin-minez dago otsaila iritsi zain.



DANI BLANCO

Zer dela-eta animatu zara Euskaraz Bizi Nahi Dugulako ekimenean parte hartzera?

Batzuetan euskaldunok aukera gutxi dugu euskaraz aritzeko eta horrelako ekimen bat baliatu egin behar dudala iruditzen zait. Erdarak tokiak hartzen segitzen du. Euskara dakigunok giro deserosoa ez sortzearen errazera jotzen dugu, eta erdaraz egin.

Gutxi dakitenei laguntzeko aukera izango duzu.

Gutxi dakitenei esan behar diegu egiteko euskaraz, lasai hartzeko eta erabiltzeko. Beldurrak uxatu behar dituzte eta dakitena erabili. Guk uste baino jende gehiagok daki eta dakigunok erabili egin behar dugu.

Hasi al zara errepasatzen senideekin, lagunekin, lantokian... zein oztopo izango dituzun?

Familia euskalduna dut, eta beraz, alde horretatik ez dut arazorik izango. Lantokiari dagokionez, irakaslea naiz eta

lankide eta hurrekin euskaraz egiten dut, baina guraso guztiekin ez. Kontua da ez naizela Egia auzoan irakasle, eta orduan saiakeraz ez dut neurri berean egingo. Lagunartean, asteburuan, poteoan, ez da hain erraza izango, ikusi behar nola moldatzen naizen, batzuegandik ihes egin beharko dut, lagunak aukeratu beharko ditut... (kar kar kar).

Euskarari buruz hitz egiten al duzue lagunartean?

Hitz egiten dugu, baina ez da gai erraza. Batzuen ustea da beti aldarrikapenean ari garela, beste batzuen ustez biktimarena egiten aritzen gara. Inor ez mintzeagatik erdaraz egiten dugu askotan. Pasa-errazak gara, harremana ez okertzeko erdaraz egiten dugu. Modu apalean, baina bi aldeak ulertzeko ahalegina egin behar dugu, eta besteak euskara erabiltzera bultzatu. Astebeteko saioa erronka izango da niretzat.

Paparrean identifikazioa pinan eraman al duzu?

Bai, jartzeko asmoa daukat. Jendearengana hurbiltzerakoan errazago izango dela iruditzen zait haiek jakitea zertan ari garen. Bestalde, egunerokoan eguna nola joan den jasoko dut, oztopoak eta beste. Nik uste dut horrek denak gero balioko digula euskaraz bizi nahi horretan hobeto moldatzeko.

Bizipen onak, txarrak, edo hausnarketak idazteko koadernotxoak utziko dituzte auzoko hainbat tokitan, nahi duenak erabil ditzan. Batzordearen asmoa idatzi horiek denak jasotzea eta martxotik aurrera ondorioak ateratzea da. Koadernoaz gain *Euskaraz Bizi Nahi Dugulako* pina ere banatuko dute. Horrela, ekimenean parte hartzen ari dela jakina izango da.

2016ko urtarrilaren 8an abiatuko den ekimenaren berri auzotar askok izango du ordurako. 18 talde eta elkarrek horren berri izateaz gain atxikimendua adierazi dute dagoeneko. Dendaria ere jakitun dira, eta Egia Euskaraz Batzordeak *Egiako Establezimenduetan Euskaraz* gida atera du. Euskaraz zerbitzua eskaintzeko gai diren 38 dendaren zerrenda da gida, behin-behinekoa. Martxo bitartean, osatzen joango dela uste dute. Izan ere, urtarrilaren 8tik otsailaren 26ra 18 eragileek eta otsailaren 26tik martxoaren 4ra norbanakoek astebeteko *Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako* ekimena egingo dute eta haiek zerrenda osatzen lagunduko dutela uste da.

Konpromisoa hartu dutenek ez dute sarerik gabe jauzi egingo. Prestaketarako aukera izango dute abenduaren 12an Aitor Ikastolan. TELP tailer moduko bat egin ahal izango du hara gerturatzen den edonork. Euskaraz egin ahal izateko oztopoak sortzen direnean, zein jarrera hartu eta nola jokatu ikasten ariituko dira. Egiako ikasketa astebeteko jardunean izango da, eguneroko hizkuntza harremanetan sortutakoetatik. Ikasitakoa konpartitu eta ondorioak ateratzen hasteko garaia berriz, martxoaren 12an, Egia Euskaraz Egunean, denek biltzeko aukera izango baitute. ■



Liburu azoka

Galdakaon, abenduaren 17tik 20ra Mugurun

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Idien kanpaia



Jakoba Errekondo

Zenbat ordu eman ote dute gure nekazariak zerutik datorrenaren peskizan? Eta igaro beharko dituztenak. Sekula santan ez da eguraldiarekin letorkeenaren beldur hori galduko; ezkutatu, aldendu, haizatu bai, baina betirako uxatzea ezinezkoa.

Baratzeetako musika eta doinuak entzunez herriko ortuetatik bira polita osatu dugu Beran; 16. ERTZ ekimenak antolatu du, eta ikaragarri aberatsa izan da, herriero beharko lukeen eskola horietakoa. Musikariak baratzea janzen, landareen komunikazioaren doinuak, lurpeko soinuaren baratzea, baratzean landatutako argazkiak, barazki gordinak hozkatu eta ahoko errotan txikitzearen kontzertu erromatarra eta ezki-lak jotzea. Kanpaiak jotzea bai.

Ezkila jole laukote ederra bildu zen Kaxernako gaineko herri baratzeetan: Aramaiotik, Aixolako Lantoko Pedro Azkargorta, Aretxabaletako Areantza auzoko Etxebarriko Julen Abasolo eta Arabako Lautadako Burgeluko Boni Jausoro eta Nati Lopez de Munain.

Nekazaritzari lotutako joaldiak eskaini zituzten. Bakoitzak bere ekosistemako joaldiak. Jo aurretik, dangako bakoitzaren nondik norakoak azaldu, bi kanpaien mingainei motzean heldu, bakoitza esku banatan, eta kanpai deiak



Nekazaria eta haren alaba, idi parearen alboan geldirik angelusa erreztatzen, XX. mende hasieran.

ENRIQUE GUINEA

dan-danba. Bertatik bertara, oilo ipurdia jartzeko modukoak; bailarari begira, hotsa nola hedatzen zen ikus zitekeen.

Garbantz-kanpaia entzun genuen, larunbatetan jotzen dena; igandean txitxirioa (*Cicer arietinum*) jaten den eguna izanik, bezperan gogoratzea, beratzen jartzea ez ahazteko ote? Hodei-kanpaiak zerua belztu eta ekaitz beldurra denean jotzen da, hodeiak ura besterik ez zezan utz eta harria eta txingorra urruntzeko. Kanpaion lagungarri, apaiak eliz atarian konjuruak egingo ditu eta baserrietako larrainetan, sanjoane-

tan bedekinatutako belar sortako ale batzuk erreko dira, pala gaineko surtako brasetan. Letxuga-kanpaia ere jo zuten, maiatzeko eta iraileko santikurutzeen artean eguerdiko angelusean jotzen dena; garai batean hori zen letxuga edo uraza (*Lactuca sativa*) izaten zen sasoi. Angelusa abemarietarako unea da, eta lana, edozein dela ere, bere horretan utzi eta erreztatza jarri behar. Idi pare batzuek ezagutzen omen zuten doinua, eta lanean ari baziren, entzun orduko geratu. Erreztatzen ari zenari barre ttikia egingo zioten... ■

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



Tolosako Babarruna



Hoberenak
soilik
aukeratzen
ditugu

© 943 650 253 · www.tolosakobabarruna.com



Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)
© 943 783 447 / 617 442 466
www.tanatorio-gipuzcoa.com

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea · [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)

EGUBERRITARAKO OPARIA

LIBURUA ETA ILARGIAREN EGUTEGIA

Salneurria: 23 €
Harpideentzat: 19,50 €

ARGIA n lurre lantzeko lanabesak eskuratu ditzakezu: *Bizi Baratzea* liburua eta 2016ko Ilargiaren Egutegia. Usurbilgo Alkartasuna Kooperatibarekin elkarlanean atera dugu egutegia Pello Zabalak aukeratutako esae- rekin. Hilero lan nagusiak, ilargiaren kokape- na eta egutegi biodinamikoaren arabera eguneroko joerak azaltzen ditu.



AURKEZPEN HITZALDIAK

Hauek dira ondorengo hitzorduak:

Abenduak 10

Hondarribia

19:00etan,

Kultur Etxean (Denda kalea).

Abenduak 14

Lesaka

Matxinbeltzenean, 19:00etan.

Bidazik eta IKAK antolatua.

Abenduak 15

Elgeta

Udaletxean, 19:00etan.

Abenduak 16

Altzo

Udal aretoan, 19:30ean.

ZER MOZKIN PSIKOTROPIKO ESKEINI DITZAKE BARATZEAK?



KOMIKILARIAK ERREKONDOREN KONTSULTAN

Psikotropiko hitzak "burua edo go- goa birarazi edo iraulkatzen due- na" adierazten omen du grekoz. Egunerokoan hain okertuak ditu- gun burua eta gogo jirabiratu eta zuzentzeko baratzea bezain lan- gintza egoki gutxi izango da.

Marrastu duzun porrua da agian ezagunena, baina buruan eragiten duen makina bat mozkin sortzen da bai baratzean. Gero eta gehiago ikusten dira tabako-belarra, lo-be- larra, asma-belarra, sorgin-bela- rra, erabelarra kalamua eta abar. Simaur eta luar pilatan ere perre- txiko interesgarriak hazten dira. Artabizarrak ezin ahantziko ditu-

gu; bide horretan gaur egun bara- tze bueltako hortentsien loreak, gaztainondoaren hostoak, malba, ekilorea eta abar luze bat erretzen dituenik ere bada.

Psikotropikoenak, hala ere, ba- razkiak berak dira: tipulin edo aze- nario guri bat (kras-kras), perre- xil ttenttea, piper min bat, ilartxo gordina, Brusela aza... Nire burua biraka jartzeko onenetakoa: uraza edo letxuga moztu berri bat. Le- txugari tiraka, egungo letxuen ar- basoa den letxuga basatiarekin oso osasuntsua den zigarreta egiten omen da...

Jakoba Errekondo

GARIBALDI ETA MAFIAREN SORRERA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Sizilia, 1860. Giuseppe Garibaldik (1807-1882) eta haren mila gudariak uhartea mendean hartu eta, hala, Bi Siziliako Erresuma deuseztatu zuten. Hau da, mila *ator gorrik* armada borboitar askoz indartsuagoa menderatu zuten. Halako balentria Italiaren batasunaren pasarte heroikoenetakoa izan zen askorentzat. Baina beste zenbaitek laguntza estraofizialari egotzi diote txikiak handia jan izana; uharteko zenbait talde armatuk Garibaldirekin bat egin zuten borboitarren aurka.

Talde horiek Siziliako lur jabe handien soldatapeko kideek osatzen zituzten, jauntxoaren interesak defendatzeko eta patrikak betetzeko indarkeria, estortsioa eta mehatxua erabili ohi zutenak. Garibaldiren gudarietako batek, Ippolito Nievok, hauxe idatzi zion Bice Melzi Gobio lehengusinari Marsalan sartu eta hilabete eskasera: “Hemen iraultza apa- la izan da beti edo, hobe esanda, ez da inoiz existitu”. Ez latifundistak ez haien soldatapekoak ez zituen Garibaldiren kausak bultzatzen. Berez, Frantzisko II.a erregearen gobernu nahiko permissioa zen talde horien legez kanpoko jarduerekin, betiere kontrolpean zituztela eta haien sarea zabalduko ez zela ziurtatuta. Eta Siziliako jauntxo edo *capo*-ak egoerei zukua ateratzeko sena zutela erakusten hasi ziren.



MUSEO DEL RISORGIMENTO DI PALERMO

Garibaldiren mila gudariak Marsalan (Sizilia) lehorreratzen, 1860ko maiatzaren 11n. Mila horiek ez ziren ziurrenik uhartea konkistatzeko nahikoak izango, bertako zenbait talde armaturen laguntza izan ez balute.

Borboitarrak egotzita, Garibaldik ez zuen botere hutsunea betetzeko lana berretzat hartu. Buruzagiak Erroma zuen jomuga, eta tropa frantziarrek defendatzen zuten Vatikanoa hartzea erabaki zuen. Baina Piamonteko errege Viktor Emanuele ez zuen gatazka korapilatzerik nahi; Aita Santua eta Frantzia nahasita, ordura arte lortutakoa galtzeko beldur zen. Eta Garibaldiren eraso geldiarazi zuen. Buruzagi militarren men egin zuen, eta Viktor Emanuel II.a Italiako erregetzat aitortu zuen 1860ko urriaren 26an.

Giuseppe Carlo Marino historialari siziliarrak *Storia della Mafia* (1998) la-

nean dionez, Garibaldi “ez zen fin ibili jarraitzaile siziliarren dohain moralak eta aurrekari moralak aukeratzean”. Eta Sizilia *jarraitzaile* horien eskuetan utzi zuen.

Urte gutxian mesede, izu eta eragin sarea hedatu zuten uharteko eliza, udal eta negozioetan. XIX. mendea amaitu baino lehen Siziliako Mafia ondo antolatutako egitura zen, eta lehen kolpe entzutetsua jo zuen, 1893ko otsailaren lehenean, Emanuele Notarbartolo bankari eta politikaria hil zuenean. Italia jaioberrian *cosa nostra* lehen pausoak ematen hasi zen. ■



FILMMAKER IQ

Zinema eta krispetak 1929an ezkondu ziren

1929ko Wall Streeteko porrotak eta ondorengo krisialdi ekonomikoak batu zituen zinema eta krispetak. Lehena go, arto lehertua kalean jateko ohitura zabaltzen ari zen, baina zinema mutua elitistegia zen oraindik, mokadu xumea aretoetan baimentzeko.

Film soinuaduneri esker, zinema nabarmen jendarteratu zen, baina krisia izan

zen krispetak aretoetan sartu zituena: zinema denbora-pasa merkeenetakoa zen, artoa ere merke zegoen, eta krispetak oso erraz prestatzen dira.

Harremana Bigarren Mundu Gerran estutu zen, azukre eskasiak joko zkanpo utzi baitzituen gozoki eta freskagarriak. Orduz geroztik binomioak telebista izan du etsai, eta mikrouhin labea aliatu. ■



TRANSIZIOAK

Hitzez kontatutako argazki erakusketa



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Franco hil ondorengo urteetatik hasi eta gaur egunera artekoak irudi bidez kontatuta. Mimos egindako argazki erakusketa baten aurrean egon gara Hernanin. Garai haietako Euskal Herriko herri mugimenduaren gorabeherak, horiek Hernanin izandako bilakaera eta herriak jokatutako papera. Horixe azaldu digute azaroaren 30ean, Kultur Etxean, ARGIAk eta Hernaniko Euskararen EgunaK ekimenak elkarlanean antolatuta.

Trantsizioak. Euskal Herriko historia hurbilari begirada selektiboa erakusketara ARGIAko argazki artxibotik bildutako irudiz osatuta dago, paneletan gaika banatuta. Hernanin Urko Apaolazaren azalpenak lau lagunek osatu eta historia herrira gerturatu dute: Ixiar Pagoagak (Hernaniko Berdintasun Kontseiluko kidea) eta Horten Bañosek Euskal Herriko eta Hernaniko mugimendu feministaz hitz egin dute, Agustin Ezpondak (Hernaniko alkate-ohia) orduko langile mugimenduz eta Hernaniko Orbegozo lantegiaz, eta Pello Zubiriak (ARGIAko

kazetaria) euskal prentsaren bilakaeraz eta *Hernaniko Kronikaz*.

“Garaipen txiki eta ez horren txikiak izan dira 70eko hamarkadatik hona, nahiz eta asko dagoen egiteko”, azaldu du hizlarietako batek. Baina kurioa da aldarrikapen batean baino gehiagotan argazkiari begiratzuz urteek aurrera egiten ez dutela iruditzea. Feminismoaren borroka nagusietako bat izan da abortu librea, eta tamalez gaur egun oraindik ere bada, eta ikusi 80ko hamarkadako manifestazio bateko eskuak eta 2014an Iruñean egindako agerraldi jendetsukoak, eta argazkiaren kolore-kalitateak besterik ez ditu egiten desberdin.

Zure herrian antolatu nahi?

Erakusketa zure herrian paratu eta bertako gairen batzuk herriko eragileek azaltzea, hori da erakusketa honen planteamendua. Antolatzeko interesa duen talde edo norbanakoak jarri harremanetan: sustapena@argia.eus -era idatzi edo 943 37 15 45 -ra deituta. ■

“Euskalduntzen hasi nintzenean kandelatxo bat izan zen niretzat ARGIA, ikas tresna. Euskalgintzan murgildu ahala, militantziarako tresna. Duela urte gutxi, bere informazio kalitateari erreparatzen hasi nintzen. Azken urteotan, ARGIAren proiektuari erreparatu diot. Eta zerbait harrotu zen nire baitan. Nire lorategi xumeko lorerik ederrenetakotzat maitatzen hasi naiz ARGIA”

Iñaki Kasares,
ARGIAko harpideduna



Eman ARGIA berriutaz zure iritzia:

- Sare sozialetan #argiaeraberritua traola erabilia.
- emailz harpide@argia.eus-era idatzita.



Proposatutako ARGIA Sarietarako hautagaiak:

- Bidali harpidetza@argia.eus-era alor hauetarako hautagaiak: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekin-tza eta merezimenduzkoa.

AGENDA

Pirritx eta Porrotxen Amalur lan berriaren aurkezpen emanaldia, ARGIAren alde

- ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldeak, urtero bezala pailazoaren emanaldia antolatu du.
- Abenduaren 19an, larunbata, 17:00etan Usurbilgo Oiaro Kiroldegian.
- Sarrerak eskuragai: ARGIAra deituta; Usurbilgo Bordatxo eta Marije tabernetan; Lasarteko Artizar tabernetan; Hernaniko Leokadisti liburu dendan; Urnietako Ezeiza Etxean; Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastolan eta Astigarragoako Ikatz tabernetan.

Eduki biralak sareko euskal komunitatean

XABIER SALDIASEK WHATSAPPEAN FUNTZIONA DEZAKE (ETA BADAKIZU)

Zaila bazirudien ere, Whatsappak eta gisako aplikazio mugikorrek are gehiago azkartu dute edukiak kontsumitzeko modua. Kode bisualean funtzionatzen dugu, begi kolpe bakarrean uler daitezkeen irudiak nahi ditugu. Inondik ere, testuinguru paregabea da eduki biralentzat. Baina sortu al daitezke halakoak euskaraz, hain komunitate txikia izanik? Zein funtzio betetzen dute #euskalGIF moduko ekimenek? Antzeko galderen bueltan jarri ditugu sareko katramiletan aritu ohi diren hiru lagun: Joxe Rojas, Ana Malagon eta Galder Gonzalez.




Kepa Matxain
@kmatxain

Era guztietakoak daude. Ikus daitezke, esaterako, Anne Igartiburu eta Anjel Mari Peñagarikano urteberri ospakizunetan, elkarri ezpain-muxu azkar bat ematen, xanpain edalontzi luzangekin topa egin bitartean. Edo Carlos Iturgaiz parlamentuan, alboko eserlekuan behar zuen despistatuaren ordezkari bozka-botoia sakatzen, *jolasten eta enredando*. Edo Odon Elorza, barrikadetarantz bidean, gabardina zabal, bularra irmo, harik eta ezustean atzera egin eta auto baten atzean ezkutatzaren den arte. Edo Roberto

Moso, Nerbioi ertzean, deabruak hartu bailuen dantzan. Nork daki, agian aurrerantzean historiara igartzeko ez da liburu handietan agertu beharrik izango. Aski izan daiteke GIF zaztar baten buklean betirako izoztuta geratzea.

Noski, horretan dabilenak ez du, zorionez, tamainako asmorik izaten. Gehienetan –ez beti– barre pixka bat egiteko erabiltzen dira. Baita euskaldunen artean ere. Berriki aldarrikatu du Joxe Rojasek euskarazko GIF-ak behar direla, euskal twitterlari saldoak egin



dio amuari kosk –bilatu #euskalGIF Twitterren–, eta horrekin batera mahai-gaineratu da sareko eduki biralen gaia. Sare sozialen garaiotan, komunikazio molde berri bat ari da gailentzen, gerroz eta bisualagoa, mamiaren aldean azkartasuna hobesten duena. Eduki biralentzat oso aproposa da hori, Rojasen ustez, “sinpleak direlako, begi kolpe batez ulertzen direnak, eta laburrak, errepikatzeak errazak”.

Galder Gonzalezen irudiko, sare sozialetan kontua ez da edukia jasotzea,

Baina zein ezaugarri bete behar ditu eduki batek birala izateko? Ana Malagonek ez du uste formula jakin bat dagoenik. “Une jakin bateko testuinguruarekin edo egoera animikoarekin bat

Animazioak egiteko formatu digitala, orain hamarkada bat inguru beherakadan hasi zena, baina sare sozialak agertzearekin bat berriro loratu dena. Batik bat, bideo zatiak izan ohi dira, YouTube-
ren adierazpen minimoak, segundo batzuetan ikus daitezkeenak.



egiteko gaitasuna azpimarratuko nuke. Hartzailearekin maila pertsonal batean, edo gaurkotasan sozialarekin modu orokorragoan". Rojasi bururatzen zaizkio ezaugarri gehiago: laburra izatea eta azalpenik gabe ulertu ahal izatea. "Umorea ere garrantzitsua da, noski". Gonzalezentzat, berriz, edukiaren iruditeria bere egingo duen komunitate bat da ezinbestekoa: "ARGIaren jarraitzaileok pentsatzen dugu Beranduegiren txistek asko barreiatzen direla. Baina badira sare sozialetan dabiltzan mila-gazte euskaldun zertaz ari garen ez dakitenak. Beraiek beren eduki biralak izango dituzte, komunitate bat baldin badago". Horregatik iruditzen zaio biraltasuna gaizki ulertzen dela sarri: "Sor ditzagun eduki biralak bezalako esaldiak entzuten ditugu, baina alderantziz behar luke: sor dezagun komunitate bat, eduki batzuk barreia ditzakeena. Biral-tasuna da Whasappean eduki bera hiru lekutatik oso denbora gutxian jasotzea".

Iruditeria kolektiboa finkatzeko tresna

Apenas zegoen euskal GIFik orain bi hilabete inguru Rojasek bere blogeara ateratu zuenean: "GIF animatuak ingelesez topa daitezke, gaztelaraz, frantsesez... baina euskaraz?". Gabezia bati erantzun nahi izan zion, berak dioenez: "Whatsapp taldeetan etengabe hedatzen dira eduki biralak. Eta guretik sortutako edukirik ez badago, beste batzuek sortutakoetara jotzen dugu. Se-

» GALDER GONZALEZ:

"Eduki biralak sortu baino, sor dezagun komunitate bat, eduki batzuk barreia ditzakeena"

» ANA MALAGON:

"Lagungarria litzaiguke gure erreferente amankomunak erabiltzea. Ez dugu Oprah Winfrey bezalakorik, baina Goenkaleko Maria Luisa bai"

» JOXE ROJAS:

"Lorpen handia izango da meme batzuk euskal tribuaren barruan zirkulazio handia izatea"

Geroz eta gutxiago erabiltzen ziren GIF animatuak berpiztu dira sare sozialekin. Goiko irudian Joxe Rojasek abiatutako #euskalGIF ekimenaren barruan bildutako zenbait irudi.

guru nago gure gaztetxo askok ez daki-tela nor den Xabier Saldias, baina Julio Iglesias askoz ezagunagoa egiten zaiela, bien lan diskografikoa guztiz ezezaguna izan arren". Horregatik iruditzen zaio GIFak iruditeria kolektiboa finkatzeko eta erreproduzitzeko bide egokia izan daitezkeela.

Gonzalezi ere garrantzitsua iruditzen zaio eduki horiek Euskal Herriko errealtatean sortzea. Beste kontu bat da euskaldunon artean komunitate bat baino gehiago egon daitezkeela. "Lagun euskaldun bati bidali nizkion niretzat barregarriak ziren #euskalGIF batzuk, baina harentzat ez zuten graziarik". Hala ere, tresna egokiak iruditzen zaizkio umore propioa lantzeko eta, zorte pixka batekin, euskarara eta "gure mundu ikuskerara" jende berria erakartzeko. Rojasek antzera pentsatzen du, euskaratik sortutako meemek erdal komunitatearekiko zubilana bete dezaketela. "Sarritan, irudia da memearen osagai nagusia. Horrek lagundu dezake euskaraz ondo ez dakitenek ere euskal memeak erabil ditzaten, eta, besterik ez bada, iruditeria kolektiboan euskal erreferenteak txertatzeko modu ona izan daiteke".

Erabilpen guztiz praktikoa dute GIFek Malagontzat. "Ia edozer gauza adie-

razteko komunitate afro-amerikarrak Oprah Winfreyren GIF animatuak erabiltzen dituen bezala, lagungarria litzazuke gure erreferente amankomunak erabiltzea gure 140 karaktereko adierazpenak ulergarriagoak egiteko. Ez dugu Oprah bezalakorik baina, tira, Goenkaleko Maria Luisa dugu”.

Umoretik harago

Meme, GIF eta tankerakoak umoretik sortu ohi diren arren, erregistro horretatik harago ere baliagarriak dira. Hala dio Rojasek: “Bi paragrafoko testu bat sor dezakezu azaltzeko lehendakaria epela baino gehiago dela autodeterminazio kontuekin, edo ‘nazioforala’ bezalako bi hitzekin meme bat egin dezakezu gauza bera esateko. Ez dut uste halakoetan umorea denik memearen kargarik handiena”. Hala ere, ukaezina da eduki biraletan umoreak arrakasta handiagoa izan ohi duela, Malagonen ustez. “Gauza labur eta arinen bila gabil-tza. Ohartu behar dugu zenbaterainoko presentzia duten sare sozialek eta mezularitza sistemek gure aisialdian, lan orduetako aisialdia barne”.

Biraltasunaren gaia ez da berria. “Go-viral!” (kanpaina birala izan dadila!) egi-ten zuten aldarri orain hamar urte onli-ne publizitate agentzietan, Malagonek oroitzen duenez: “Egun ez dakit horrela den ala amore eman duten ikusita bira-la izan behar zuen zerbait bilatzen zen bakoitzean ez zela biraltasunik lortzen, eta, alderantziz, bilatzen ez zenean lor-tzen zela”. Rojasek eta Gonzalezek go-goan dituzten kanpaina biral batzuk ze-rrendatu dituzte: politikan, “V de Bildu”, adibidez. Publizitatean, berriz, Euskal-telen Patxiii! famatua, Kelerren Epa!, eta ARGIAren #darpidegu kanpaina. Beste bat ere oroitu du Rojasek: “Bartolo ja-tetxearen Euskadi Irratiko iragarkiak. Hain dira atorranteak, nahita eginak di-rela pentsatzen hasia ere banago. Biral-tasuna bilatzeko egin dituzte horrela-koak, ez dago beste azalpenik”.

Naturalak izan, eta kito

Euskarazko eduki biralez aritu beha-rean, euskal eduki biralez aritu behar genukeela uste du Rojasek. “Horrela-koetan hizkuntzaren karga txikia iza-ten da, mezu nagusia irudian egoten da,

eta hori gure alde baliatu behar dugu”. Adibide bat oroitu du: “Orain urte bat-zuk oso modako bihurtu zen Eduard Khilen *Trololo* kantu hura, errusieraz arrastorik ez genuen arren. Barka-tuko dit Xabier Saldiasak, baina bere ‘olereili’ eta antzekoak ez al dira es-portagarriak?”. Bestalde, ez zaio irudi-tzen edukiak mundu osora zabaltzea ezinbestekoa denik. “Lortzen badugu meme batzuk euskal tribuaren barruan zirkulazio handia izatea, lorpen handia izango da, kontuan izanda guk baino askoz gehiago kontsumitu eta produ-zitzeko gai diren hizkuntz eta kultur komunitate erraldoiz inguratuta bizi garela”. Antzera uste du Gonzalezek: “Biraltasuna ez da komunitatearen ta-mainaren araberakoa, komunitate ho-rretan sortzen duen erreakzioaren ara-berakoa baizik”.

Euskal memegintza hasi besterik ez da egin. Eta biderako, kasik hobe hain-beste nekatzen gaituen nazio eraikun-tzaren motxila erantztea. Malagonek garbi dauka: “Gure adierazpenetan na-turalak eta zintzoak izatearekin nahiko lan badaukagu”. ■

Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio



Ainara Ortega, musikaria

“JAZZEAN BADAUDE BERTSOLARITZAREN ANTZEKOAK”

Kontserbatoriotik piper egin eta Koldo Mitxelenako fonotekako bidea hartzen zuen biolina bizkarrean zintzilik. Beti jazz inguruko diskoetaraino. Orain, ametsak kantu bihurtu eta *Scat* jazz diskoaren inguruan borobildu ditu bere baitako “ni”ak.



Judith Montero Imaz

Ia barne terapia izan da guztia eta, orain bai, musika klasikoa aditzen du etxera iritsitakoan. Baina “beste era batera” dio. Bere “ni”ez gain, Iñaki Salvador, Hasier Oleaga eta Javier Mayor izan ditu proiektuan eta Amaia Zubiria, Mikel Andueza, Baptiste Techer eta beste zenbaiten ekarpenak ere biltzen ditu diskoak.

Txikitatik musika giroan bizi izan zara, aita Incansables Txarangako “Canario” duzu eta ama Margari piano-jotzaile eta solfeo irakaslea. Musikariak biak.

Amarekin ikasi nuen solfeo guztia. Eta Eduardo Lassalettarekin biolina. Gizon goxoa zen, biolinera maitekiro hurbildu gintuen. Garai hartan gure etxea akademiatar bat zen, beti ikaslez beteta, txirrinak, haurrak, gurasoak, musika, pianoa, kantua... Eta aitaren txarangaz, zer esan, erotu egiten ninduen. Biolinarekin bere diskoak behin eta berriz jotzen nituen, txarangaren soinuari hain ondo ematen zion...

Baina Gradu Profesionaleko Kontserbatorioan bestelako esperientzia izan zenuen, nahiz eta ikasketak amaitu...

Bai, gogor eginda bukatu nituen, han ezin zelako musikarekin jolastu, sistema zaharkituarekin egiten delako lan. Bukatutakoan, ohe azpian sartu nuen biolina, hautsa hartzera. Saturatuta bukatu nuen eta unibertsitatara joan nintzen Psikologia ikastera.

Abesti bat ere eskaini diozu Kontserbatorioko giro horri. Chopinen Nocturno batekin hasi eta Brasilgo bossa-nova batekin amaitu, askoz kontentuago. Katarsia?

Zalantzak neuzkan kantu hori diskoan sartzearekin baina hainbestek esan dit identifikatuta sentitzen dela... musika jolasa dela, egiten ari garena ez dela “hain garrantzitsua”, gaizki eginda ere hemendik edo handik tira eta eboluzionatzen joan gaitezkeela, alegia, ondo aritzeko geure buruari gaizki egiteko baimena eman behar diogula. Horiek guztiak gerora jazzarekin landu ditudan balioak dira.

Deigarria eta ederra iruditu zait diskoan hau irakurtzea: “Eskerrik asko Koldo Mitxelena Kulturuneko fonoteka hornitzen dutenei, hantxe amestu bainuen lehen-dabizikoz abeslari nintzela”.

Erotu egin ninduen hura ikusteak, diskoz beteriko espazio hark! Askotan Kontserbatorioko eskolaren bat uzten nuen hara joateagatik. Diskoak ateratzen nituen eta, egia esan, beti jazz inguruan bukatzen nuen. Estetika ilun haiek, aurpegi beltz horiek, bluesak... guztiz harapatu ninduten! Han hasi nintzen jazz abeslariak entzuten.

Gerora Iñaki Salvadorrekin armonia modernoa ikasten hasi nintzen. Orduan hasi ziren antolatzen Zarauzko Jazz Mintegiak eta Sheila Jordan abeslaria entzun, eta markatu egin ninduen. Garai hartan Musiken Jazz Departamendua jarriko zutela, eta bertan hasi nintzen. Ohartu nintzen hura zela nire lekua. Han guztia zen argia, ilusioa, ikaskide zoragarriak, gertukoak, munduan

erreferenteak ziren irakasleak ekartzen zizkiguten, ametsa bezalakoa izan zen guztia.

Eta Musikene bukatuta, zer?

Ba, amildegi handi bat, egia esateko. Handik atera eta irakaskuntzako zerrendetan sartzeko titulazioarekin arazoak ditugula ikustean, emanaldiak ere oso urriak direla ikusten duzunean... Ba, korapiloa ederra da, bai. Urte gogorak izan dira.

Scat da zure diskoaren izena...

Scat-a jazzean ahotsarekin egiten den inprobisazioa da. Silabak tartekatuz, esanahi zehatzik gabekoa.

Egiten duzun abiaduran inprobisatzeko, zein lan egiten duzu?

Musika-tresnekin bezala egiten da etxeko lana. Pianoarekin aritzen naiz denbora askoan. Armonia landu eta buruz ikasten dut. Eta lehen-dabiziko buelta batean “belarriz” inprobisatzen saiatzen naiz, arrazionalki gehiegi pentsatu gabe, ahal dudana modurik naturalenean. Ondoren armoniaren eta eskalen lanketa sakona egiten dut, arrazionaltasunaren galbahetik pasatzen dut guztia, aukera berriak, “tentsio” interesgarriak bilatuz. Kantuan bai baitugu muga bat, barnean “entzuten” ez duguna ezin dugu kantatu. Beraz, armonia horri aukera berriak bilatu eta gero baliabide hori neure bilakatzen saiatzen naiz. Ondoren kontzertuan bat-batean erabili ahal izateko. Kontzertuan ez baitago notetan pentsatzen hasteko astirik.



DANI BLANCO

'Scat' du izena Ortegarren diskoak: scat-a jazzean ahotsarekin egiten den inprobisazioa da, inguruotan gutxi lantzen den estiloa.

Bertsolarien bat-batekotasuna eta haien prestaketa lana datorkit burura zuri entzunda.

Bai, jazzean ere badaude testuekin jolasten dutenak baina askotan hitzen bat, esalditxoren bat, zertzelada txikiren bat izaten da. Badago Ella Fitzgeralden *Mack the Knife* Berlingo zuzeneko emanaldiaren grabazioa non, letra ahaztu eta bat-batean inprobisatu egin zuen, izugarri famatu egin zen, historiko bilakatu da grabaketa hori. Bluesean ere letrak inprobisatzen dira. Beraz, badaude bertsolaritzaren antzekoak jazzean ere.

Irakurri zaitut esanez zeure diskoa jazz etiketaduna dela, ia haserre puntu batekin. Zergatik hori?

Kar, kar! Ez da haserre baina bai apropos egindako zerbait. Aspertuta nago "ez nuke neure musika etiketatuko" entzuteaz. Ironiaz esaten dut iritsi dela puntu bat ez dituguna geure miseriak eta zorionak erakutsi nahi, eta "ni halako naiz" esatea kosta egiten zaiguna, geure dohain eta gabeziekin, baina "halako". Garena. Jarrera snob horren aurrekoa da nire baieztapena.

Diskoko argazkia oso Billie Hollidayren estetikakoa da, ezta? Lore gorria buruan eta iluna, gorria, beltza... Baina pajaritaz eta gizon trajez jantzita gero.

Bai, alde batetik etiketa horretan sartu nahi nuelako dago lorea; eta nik horrelakoak askotan eramaten ditudalako. Eta gizon trajearena, ba, aspertuta nagoelako "abeslari sexy"aren topikoaz, emakume, gizon, jazzman, jazzwoman, biak daude nire baitan. Lorea emakumearen topiko bezala, pajarita gizona-

rena... Jazz musikaria naiz eta ahotsa da nire musika tresna. Ez dago besterik.

Zer egingo duzu hemendik aurrera?

Diskoarekin emanaldiak egingo ditugu: abenduaren 9an Victoria Eugenia dugu lehenbizikoa, Bilboko Bandarekin ere arituko naiz Euskaldunan abenduaren 20an eta antzerkian nabil *New Orleansko Cyrano* obrarekin. Gainera, ETBn urtarrean hasiko den *Eskamak Kentzen* telesailan ari naiz. Gelditu gabe! ■


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ezer gertatzen ez denean



Amaia Alvarez Uribe



Dalloway andrea / Emakumeen lanbideak edo Etxeko Aingerua hiltzea

VIRGINIA WOOLF

Itzultzaileak: Itziar Diez de Ultzurrun eta Ana I. Morales
EDO! 2014

Ekaineko egun batean jazotakoak kontatzen zaizkigu *Dalloway andrea* nobelan. Protagonista den Clarissa iluntzean bere etxean emango duen jaia prestatzen arituko da egunean zehar. Aldi berean, Septimus paseoa eman eta medikuari bisita egingo dio gerrako aztarnei buruz hitz egiteko. Virginia Woolfen lanik ezagunenetakoa den honek gogo-korrontea edo barne bakarriketa estilo narratiboa erabiltzen da, oroitzapenak agertzen dira *flashback*en bitartez eta pertsonaien pentsamendu eta sentimenduen katea osatzen dute egun horretan zehar gertatutakoekin batera.

Pertsonaia asko agertzen dira I. Mundu Gerra osteko jendarte britainiarraren erretratua osatzen dutenak bi pertsonaion gidaritzapean. Denboraren iragaiteaz edo bizitzaz eta heriotzaz egiten dute gogoeta biek; egunerokoaz eta naturaren ñabardurez jabetuko da irakurlea haien begiradek gidatuta, klase sozial eta genero kultural desberdinen gaineko pertsonaia eta harremanak irudikatuko zaizkigu xehetasunez; zoramenaz eta maitasunaz aritzean auzitan jarriko dituzte zenbait uste eta arau.

Emakumeen lanbideak edo Etxeko Aingerua hiltzea testuan aldiz, emakume idazlea izateari buruzko hausnarketa dugu, idazle nola bihurtu zen kontatzen digu eta hori lortzeko zer egin behar den: etxeko aingerua hil (emakumeek bete beharreko rol femenino tradizionala) eta emakumeen pasio eta gorputzez hitz egitera ausartu. Hortaz, “irudimena inkontzientearen sakonean urperatuta” libre arakatzeko utzi eta “aurreiritzi asko gainditu” behar ditu emakume idazleak.

Deigarria egiten zait XX. mendeko klasiko-tzat jotzen den idazle honek euskarara nola izan den ekarria. *Farorantz* argitaratu zuen Ibaizabal argitaletxeak 1993an Literatura Unibertsala bildumaren barruan eta hogeitau urte pasatu behar izan dira Woolfen beste lan bat euskaraz irakurri ahal izateko: *Gela bat norberarena*, (Consonni 2013). Eta hurrengo urtean EDO! argitaletxeak eskuartean dugun lana eman zuen argitara. Zergatik pasatu behar izan dira ia ehun urte azken bi lan hauek euskaraz izateko? Zergatik izan dira bi argitaletxe “periferiko” plazaratzeko lana hartu dutenak?

Woolfek literatura balioesteko irizpideak salatu zituen *Gela bat norberarena* lanean: “Gudu zelai bateko eszena bat askoz garrrantzitsuagoa da denda bateko eszena bat baino”. Eta *Dalloway andrea* nobelarekin argi geratzen da egun batean gertatu eta oroitu-takoen bilduman bere garaiko gorabehera guztiak bildu zitezkeela eta denboraren joan-ean gauza ugari gertatzen direla gu konturatu gabe. ■



» TELEGRAMA

Guerra izeneko ikuskizuna ekarriko dute **Fermin Muguruzak, Albert Plak** eta **Raul Rodriguezek** Donostiako Victoria Eugenia antzokira abenduaren 11n **STOP** Eibar, Coliseo antzokian abenduaren 12an: **Mursegok** emanaldi berezia eskainiko du etxe-ko txikienentzat **STOP Anari** Bonberenean igande batean: plan hoberik? Abenduaren 13an zita **STOP Olatz Zugastik** disko berria dauka eta Baionako antzokian entzun dezakezu abenduaren 11n, 20:30etik aurrera **STOP**

» MUSIKA

Ezin ederragoa



Montse Auzmendi

Loti ederra

Musika: Txaikovski.
Russian National Ballet.
Zuzendaria: Sergei Radtxenko
Lekua: Euskalduna Jauregia.
Data: azaroaren 22a.

Agian Errusiako betiko mito kulturalak gainbeheran daude, baina nahiz eta horrela izan, hain goian izan eta gero, gaur egungo egoera ez da makala. Oraindik nabaritzen da *touch of class* berezi hori. Ballet errusiar klasikoaren kalitateak jarraitzen du deigarria izaten. Oraindik bizirik daude urrezko garaiko dantzari batzuk, eta horiei esker ekialdeko tradizioa transmititzen ari da.

nia handien (Kirov eta Bolshoi gehienbat) kalitate klasikoak batu nahi izan zituen konpainia berri eta independente batean. Titulu eta koreografia klasikoak lantzen dituzte arrakasta askorekin. Hau da beren *signature* ezaugarria. Behar bada aurrerapausoren bat eman beharko lukete erreferentzia bat izateko dantza munduan. Hau da, ondo dago publikoak hainbeste maite dituen obra klasiko hauek lantzea, baina nire inpresioa da, kalitate ona eskaintzen dutela aitortuz, nostalgia puntu batean gelditu direla eta handik atera beharko luketela berrikuntzak eskaintzeko eta talde gisa hazteko.

Aldi honetan, *Loti ederra* eman zuten, Txaikovskiren musika eder eta melodiatsuekin. Radtxenko zuzendariak orain dela gutxi hildako Maia Plisetskaia dantzariari dedikatu zion, 20 urtez bere dantza-bikotea izan zen eta. Esan bezala, medio eskasekin dantza adierazkor eta ongi kontatua egin zuten. Marius Petiparen koreografia hiperklasiko eta espresionista ondo menderatzen zuten dantzariek. Taldeko numeroak doi-doiak atera ziren. Baina momentu nabarmenak *pas à deux* gehienak izan ziren. Batez ere bi protagonistek egindakoak. Alexandra Kriukova, Lotiaren pertsonaia, eta Azamar Askarov, printzearen rolean, magiaz eta erromantizismoz aritu ziren. Oso saio ona egin zuen baita ere Maria Klyuleva dantzariak, maitagarriaren paperean. Orokorrean, taula-gainean aritu ziren 40 dantzariek ikuskizun erakargarri eta teknikaren aldetik perfektua egin zuten. Xarmagarria. ■



Russian National Balletaren Loti ederra ikuskizuna

Honen froga izan da Russian National Balletaren emanaldia Bilbon. Eszenografia ez zen oso aberatsa izan; jantziak, hortxe. Baina dantzarien doitasuna, musikaltasuna, gustua... apartekoak. Sergei Radchenko, 25 urtez Bolshoi Antzokiaren dantzari bakarlaria, eta 1976. urtean, SESBeko Herriaren Ohorezko Artista izendatuak talde hau sortu zuen 1989. urtean. Berak, Errusiako dantza konpai-

Oskorriren omenezko post bat

OSKORRIREN AZKEN ERROMERIA

GASTEIZKO MENDIZORROTZA, URRIAK 17

Hauxe da despedidia birako emanaldia.

Aitzina Folk Jaialdiaren barruko kontzertua.

Jaialdiaren amaierako kontzertuak urtarrilaren 2

eta 3an izango dira: Eskoziako Calum Stewart &

Heikki Quartet ariko dira eta Portugaleteko

Xabi Aburrizaga Band.



Fermin Etxegoien

@FETxegoien

Negarrez ari zara? Ez al zinen, bada, postmoderno garai hartan? 80ko hamarkada ditxosozkoaz ari zitzaidan jesarleku kidea, a ze aspertuta gauden guztiok garai hura gogoratzeaz, ados, baina kontua da Oskorri zuzenean azken aldiz ikusten ari ginela, Gasteizen, Mendizorrotzan, despedida biran, duela pare bat hilabete, eta agian bosgarren aldia-edo izango zen... begietako malakoak ezin ezkutaturik harrapatzen ninduela ondoko lagunak, malko potoloak gainera, neuk ere ikusteko modukoak, begien aurretik, aizue, pelikula baten gisan igarotzen zihoakidan bizitza nola, bat-batean gogora etorri egin zitzaidala zer, eta Vega de Urriellu aterpetxetik jaisten ari ginen hogeita hamar urte lehenagoko egun hura: emakume bat irten da La Tenerosa mendi-bordatik eta adartxo batzuk ebaki ditu inguruko zuhaitzetan; hura ikusita, nirekin datoren lagun bilbotarrak –ekologista megazaguna eta ni baino apur bat zaharragoa, hau da, 70eko hamarkadako sentiberatasunaren ordezkaria, Oskorri bezala– errieta moduko zer bait egingo dio bertako emakumeari; nork eta hiritarrak!; nola ez ginen, bada, post (pen-



JAIZKI FONTANEDA

tsamendu likidoaren aldeko) bilakatuko ondorengo belaunaldikook, gure adiskide apur bat zaharragoak hain hutsezin agertzen baldin baziren beti eta edozein auziren aurrean, marxismoaz –edo ekologismoaz– lauzpabost –edo berrehun liburu irakurri izanari esker –dirudienez– eta barkatu neu ere adarretatik joan baldin banaiz, baina Natxok berak egin zuen hamarkada haietako zenbait dogmatismoren aipua kantuen artean mintzatu zen bakanetan, beste batzuk kantuetan zehar isuritako negar-anpu luak lehertzeko ahaleginetan huts egingen –pentsamendu likidoaren berezkoa ei da– ari ginen bitartean.

Sekulako esperientzia Oskorriren despedidea! Noraino hunkitu behar ninduen jakin izan banu, kontzertu guztietara joango nintzen. Vitoriakoa –Natxo, behin eta berriro– primeran egon zen maila guztietan. Musikalki eta espiritualki, hasi eta buka. Jendea bere baitan

bildurik, kantuok entzuten, edo bestela dantzaz, oldeka bai, baina baita, nago, mistikotasun ezkutaekin batez, azken errezitaldia ez ezik Oskorriren azken azken erromeria genuelako, non eta inoiz baino hitz-urriago agertu zitzagun Natxo prediku emaila bera (auto-definizioa duzue).

Bakeak eginda bezala agertu ere, bururatu zitzaidan.



Halaxe sentitu baikinena asko, post zein pre, jaialdian.

Milaka aldiz errepikatutako kantuak zuzenean azken aldiz entzutean, kantu horiek lehendabiziko aldietan eragiten zuten iragan ilunarekiko onura baltsamikoa zein orduan abiatzen ari zen etorkizun itxaropentsuari zekarkioten alaitasun eraldatzailea, biak ala biak sentipen eder bezain aspaldikoak, gure barrenean orainaldi eternal nahiz galdu baten gisan berragertu balira bezala, eta hortik ere negarrak. ■

Egilea: Ana Zambrano

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Antonio Baños CUPeko parlamentariak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.


7			8		6			9
6		3		5	4			
		9		3	7	2	6	
	1	3				5	6	
2	3		9			4	1	
5	7			1		2		
	9	2	4	6		1		
		7		1	3		4	
1			9		3			2

9	3		4	2				6
						3		1
6		4				2		
5				3	4		7	
	7		9	6				4
	2					8		3
8		6						
3			7	1		6	5	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Euskarria, sostengua. 2. Zurezko ontzi.
3. Gabe. 4. Hitz baten jatorrizko erro.
5. Antzinako lantza txiki.



Hizki berak

Osa itzazu hitzak, falta direnak hizki berak direla kontuan izanik. Hurrenkerak ez du zertan bera izan.

1				R	D	O	T	U
2	L		R	U	N	B	A	T
3	B	U				R	G	I
4	S	I	M				T	U
5	H	E	L	D				O
6	A	B	E	N	T			

Soluzioak

1	4	5	9	7	3	6	8	2
8	6	7	5	1	2	3	9	4
3	9	2	4	6	8	1	7	5
5	7	4	6	8	1	9	2	3
2	3	6	7	9	5	8	4	1
9	1	8	3	2	4	7	5	6
4	8	3	2	5	9	4	1	7
6	8	3	2	5	9	4	1	7
7	2	1	8	4	6	5	3	9

Puzzlea:
"Erreferenduma egin beharko da. Guk prozesu konstituziogilearen ondoren kokatzen dugu urrats hori, non konstituzioa izan beharko den berretsia".
5x5:
1. Habea. 2. Abatz. 3. Barik. 4. Erimo. 5. Azkon.
Hizki berak:
1. Urardotu. 2. Larunbat. 3. Buruargi. 4. Simaurtu. 5. Helduaro. 6. Abentura.

César Rendueles. Pertsonaia literario bihurtu du kapitalismoa



NÚRIA JUAN SERRAHIMA

Soziologoa. Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakaslea. Ladinamo kolektiboaren sortzaileetakoa. Bi saiakera idatzi ditu: *Sociofobia*, aldaketa politikoa aztertzen duena utopia digitalaren garaian; eta *Capitalismo canalla*, kapitalismoari buruzko historia pertsonal bat, literaturan barrena.

“Patrika beteta duen ergel bat bezala bizitzea izan zen gure eredua”

Aritz Galarraga
@aritzgalarraga

Literatura

“Kapitalismoaren historia pertsonal bat idatzi dut, literaturaren bitartez. Kapitalismoaren historia azaltzeko baino, kapitalismoaren historia pentsatzeko balio izan dit literaturak. *Moby Dick* ekintzaile ero baten istorioa da, erorialdian langile prekario talde bat herrestan daramana. *Gauaren muturrerainoko bidaia* liburuko protagonista biolentzia kolonialaren, esklabismoaren eta lan diziplinaren arteko jarraipena ezagutzen du Afrikan. *Ilun-peen bihotzean* eleberria ez da propio kolonialismoaren krimenei buruzkoa, alienazioaren ingurukoa baizik. Azken-erako, historia, bizitza eta fikzioa elkartzen diren eremu zingiratsu bihurtu zait liburua.”

Jada ez dago hiritarrik; kontsumitzaileak gara.

Eta erosketa zerrendak definitzen gaitu. Gure bizitza sozial guztia harreman komertzialen mende dago. Egia da ia gizarte guztiek ezagutu dutela komertzioa, baina gizabanakoen arteko bizitzan oso pisu mugatua duen errealtate gisa. Azken hamarkadetan, aldiz, kontsumo modu sofistikatuak agertu dira, gure izaera egituratzen dutenak: aldagarriak diren lehentasun multzo baten emaitza gara.

Komunikazio teknologiak dira horren paradigma?

Kontsumismo mota osatuena dira. Konprometitzen ez gaituzten aukerak eskaintzen dizkigute. Beste aukera batzuek konprometitu egiten gaituzte: nahi duzunean abandona ezin daitezkeen erlazioak, familia, lagun, elkarte, sindikatu, alderdi politiko; ikuspuntu hedonista batetik desiragarriak ez diren prozesuak eskatzen dizkizute, negoziaketak, argi-ilunak, grisak. Eta hori kontsumoaren eremuan desagertu egiten

da: nik nahiago dudana, nahiago dudanean eta nahiago dudana bezala.

XX. mendeko gatazka handien sorburuan merkatu konpetentziaren nagusitasuna jartzen duzu, eta ekonomiari eman zaion gehiegizko ahalmena.

XIX. mendean pilatu ziren tentsio multzo baten ondorio dira. XIX.a, harreman kapitalisten garapena eman zen mendea, modu baketsuan bizi izan zen, European behintzat ekonomiaren garai- penak bazter utzi zituen aurreko mendeetako gatazka politiko eta erlijiosoak. Gatazkak periferiara kanporatzearen ondorioa izan zen, noski, kolonietara. Baina desagertu beharrean, gatazka sozial, politiko, ekonomikoak pilatuz joan ziren, eta krisi izugarri batek eztanda egin zuen, merkatu librearen idealaren ezintasunaren ondorioa izan zena.

Merkatu librea ez da ona edo txarra, ezinezkoa da.

Gure bizitzarekin bateraezina da. Egia, ez da inoiz existitu, merkatuak beti behar



ELVIRA MEGÍAS

"Kontua da ea krisitik ateratzeko kapaz izango garen. Eta ateratzekotan, ez dugu sinetsi behar gure aurrean aukera ugari izango dugula".

izan ditu estatuaren eskusartze erraldoiak, ortopedia sozial basatiak, utopia bat da. Eta XX. mendeko momentu zorioneko batzuk izan ziren utopia hori mugatu zutenak, ongizate estatua garatuz.

Lan antolaketa kapitalistak zer harreman du esklabismoarekin?

Soldatapeko lana berritasun historikoa da, jendea ez da horrela bizi izan inoiz. Merkatuak agertzen hasi zirenean, lan eremu berrietan aplikatu ziren ereduak esklabotzatik zetozen: lan ez kualifikatua zen, zeregin errepikakor, zatikatuekin. Kontrakoa baitzen lan kualifikatua, artisauena, gremioena, lan zaila, baina autonomia handi bati lotuta zegoena. Ez da gauza bera esklabo izatea eta soldatapekoa, baina lerro zuzen bat dago batetik bestera.

Kapitalismoak hainbat gauza erraustu ditu, haien artean harreman sozial tradizionalak.

Gauza da zein nahi ditugun berreskuratu: harreman sozial tradizionalak menderatzez, sexismoz, superstizioz beteta

daude. Baina masa merkatuak eskaintzen diguna baino lotura dentsuagoa berreraikitzea nahitaezkoa da, perspektiba askatzaile batetik bederen. Halere, masa gizarteek ez dituzte denek berdin deuseztatu lotura sozialak. Berdintasun handiagoa duten gizarteek lotura sozial solidoagoak dituzte. Uste baino tarte handiagoa dugu maniobrarako.

Krisi garaia, Gramsciren hitzetan: zaharra ez da hil, berria ez da jaiotzen.

Baina kasu askotan krisia da normaltasuna. Kontua da ea krisitik ateratzeko kapaz izango garen. Eta ateratzekotan, ez dugu sinetsi behar gure aurrean aukera ugari izango dugula. Aukerak orain ari dira erabakitzen, gu gara norabide batera edo bestera eramango gaituzten erabakiak hartu behar ditugunak. Jokoa dago: krisia goitik ixtea, eliteen onurak mantenduz, edo zerbait berria jaiotzen laguntzea.

Apatia, urruntzea, eszeptizismoa bizi ote ditugun aldaketa sozialerako prozesuekin. Neoliberalismoaren garaipenik handie-

na, aberastasunaren banaketa desberdin batekin batera, noski, gizartearen desartikulazioa da, gizarte zibila birrintzea. Ez da kasualitatea: herrialderik konpetitiboena, krisia hobekien eramaten ari direnak, Finlandia, Suedia, Norvegia, Danimarka, munduko afiliazio sindikal altuena duten herrialdeak dira, %70etik gora. Bestela ez daukagu baliabiderik esku sartzeko, ekiteko, eta horrek dakar alternatiba oso zaila izatea.

Eta eliteen bizimodua imitatzeke irritsa dugu oraindik.

70eko hamarkadatik, langile klaseko milioika lagun elite ekonomikoekiko mendekotasuna zekarten proiektuak babesten hasi ziren, beren onura materialen kontra zihoazenak. Patrika beteta duen ergel batek bezala jantzi, jan, bidaiatu eta hitz egiteak irrigarria izateari utzi zion, eta gure bizitza-eredu bilakatu zen. Ingalaterra eta beste herrialde batzuetan porrot sentsazioa dago. Guk aldiz eboluzio naturaltzat dugu, eta hori porrota baino desmobilizatzaileagoa da. ■



ESPAINIAKO KONGRESURAKO HAUTESKUNDEAK 2015

baita ezertarako balio ez duen beste txirigito horretarako ere

Nire bozka ematen diot ondorengo hautagaitzari:
Done el meu vot a la candidatura presentada per:



Kamikaze Ulerkor Pantumakazaleak

Disputatuak

- | | |
|---------------------------------|---|
| 1. NIKO ETXART | 23. ARITZ GALARRAGA |
| 2. LOREA AGIRRE DORRONSORO | 24. MADDALÉN IRIARTE (gurekin onartu du) |
| 3. HIRU DAMATXOKO HIRURAK | 25. DAVID FERNÁNDEZ |
| 4. JOSEBE ITURRIOZ | 26. RUBÉN SANCHEZ |
| 5. ABEL AZKONA | 27. PIPI KALTZALUZE |
| 6. JOSU LANDA | 28. LUCIO URTUBIA |
| 7. DANELE SARRIUGARTE | 29. KOLDO IZAGIRRE (nahiz eta berak utikani esan) |
| 8. @MUYBASTOS | 30. SANTI LEONE |
| 9. JOSEBA TAPIA | 31. BITTOR AIAPE |
| 10. OIHANA BARTRA | 32. JOKIN AZPIAZU |
| 11. MIKEL SAN JOSE | 33. MIREN ARANGUREN |
| 12. JOXEMI ZUMALABEKO GUZTIAK | 34. JOXE ROJAS |
| 13. MIREN ARTETXE | 35. XANTA SOUZA |
| 14. SABINO CUADRA edo ORMAZABAL | 36. HASSANNA AALIA |
| 15. LAKABEKO UKENDUGILEA | 37. ANDER LIPUS |
| 16. GAIZKA GARITANO | 38. GOENKALEKO MARIA LUISA |
| 17. ARANTZA SANTESTEBAN | 39. AXPI |
| 18. ARANTZA QUIROGA | 40. INÉS OSINAGA |
| 19. JAKOBA ERREKONDO | 41. GARTXOT |
| 20. OLATUKOOPEKO BEÑAT | 42. ALAITZ ETA MAIDER |
| 21. EKHI ERREMUDEGI | 43. @ARANAGOIRI |
| 22. HEDOÍ ETXARTE | 44. JOSEBA SARRIONANDIA |

Ordezkoa / Suplent
 ZUHAITZ GURRUTXAGA

+ BESTE 237 LAGUN.
 MUGIMENDU ASANBLEAR OA GARA ETA.

Kondoi gabe larrua jotzeko sistema hobetsi dute Eskoriatzan eta Bergaran

Eskoriatzako eta Bergarako herri-tarrek erreferendum bidez erabaki dute sexu harremanak izatekotan (ez dago erraza), kondoirik gabe egitea dela sistemarik onena. "Bilduko inposizioa da kondoi zikin hori", adierazi dio galdeketa bozkatu ondoren herritar batek gure korrespontsalari. "Preserbatiboak zikinak dira", esan du bozkatzera sartu aurretik beste bizilagun batek eta arratoiengatik inguruko zerbitu gaineratu du. Bi herrietan profilaktikoen kontrako kanpaina bultzatu duen "Txortan txukun" plataformak ukatu egin du galdeketez zerikusirik dutenik seropositi-boentzat Zubietan eraiki behar duten ospitale pribatu berriekin.



Bizkarrezurreko 32 lesio eragin ditu Ramon Saizarbitoriaren azken liburuak

32 lagun ospitaleratu behar izan dituzte berriki amaitu den Durangoko Azokaren ondoren bizkarrezurreko lesioengatik. Basurtuko ospitaleko traumatologia buruak adierazi duenez, Saizarbitorismo kasu argiak dira denak: "Gaitza asko zabaltzen zen 2012an Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* publikatu zuenean. Liburuaren ia 800 orriak motxilan garraiatzeak kalte sendaezinak eragin zituzkien askori. Azken urteetan lasaiago ibili gara, baina aurtengo *Lili eta biokekin* berriz hasi dira kasuak ugaritzen. Ia 600 orri, pentsa! Alerta egoera aktibatu behar izan dugu". Osasun alorreko arduradunak dagoeneko kontaktuan jarri dira Erein argitaletxearekin. Saizarbitoriaren lana faszikuluka publikatu dezatela eskatzeko.

ABENDUAREN 20KO HAUTESKUNDEETAN BOZKATU KUP!

Kontrakoa dirudien arren, beranduegi-lariok ez gara apartidistak. Alderdiak maite ditugu. Batez ere erabakitzeke gune gorenean gu bagaude. PACMA ala Ciudadanos, zein bozkatu ez dakizula? Ez kezkatu, azkenean bai, baduzu alternatiba. 281 lagunek zerranda prestatu

dugu. 260 liberatut, 20 bekadunek eta Zuhaitz Gurrutxagak osatuta. Kamikazeak dira, ez terroristak! Bozkatu KUP! #KupGurea

PD: Kataluniarekin antzik aurkituz gero, kasualitate hutsa da.

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

| OROIMEN HISTORIKOA

INGURUMENA

EUSKALTALETASUNA

ELIKADURA BURUJABETZA

INDEPENDENTZIA

PAREKIDETASUNA

DEMOKRAZIA ZUZENA

DESOBEDIENTZIA ZIBILA


GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA

HERRIEN MUNDUA

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

SEXU ASKAPENA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



ARGIA n, ia mende osoko euskarazko kazetaritza lanaren oinordeko gara. Jaso dugun ondarea zainduz, nagusiki Euskal Herrian hedatzen den proiektu komunikatiboa gara. Ondare hori jendarteratzeko asmoz, *Trantsizioak* erakusketa ibiltaria martxan jarri dugu.



*Suti Amilibiaren GERRAKO
IPUINAK.*
Ipuin liburua.

3 ale

INTXORTA 1937 Kultur Elkartea
www.intxorta.org



*Gerra Zibila Debagoieneko
herrietan.*
Liburuak eta dokumentalak.

2 sorta

INTXORTA 1937 Kultur Elkartea
www.intxorta.org



*Aldaba Joka. Hernaniko
ahozko historia txikia.*
Liburua eta DVDa.

3 sorta

Dobera Euskara Elkartea
www.dobera.eus



*Euskararen Kate hautsiak eta
Frankismoa Euskal Herrian.*
Liburuak.

2 ale

Euskal Memoria Fundazioa
www.euskalmemoria.eus

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

argia 2016ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz jazteko

EGURREZKO
TAULA

50€

egutegia opari

Historia gaiak
Hitzokeiak
Etixerako gomendioak
Zientzia
Baratzea
Errezetak
Efemerideak
Santuak
Euskal izendegia
Eguzkia, ilargia eta mareak



EGUTEGIA

9€

Eskaerak:

www.argia.eus/denda · denda@argia.eus · ☎ 943 371 545